

# **AURKIBIDEA**

## **ZIOEN AZALPENA**

### **I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

I. KAPITULUA. EREMUA, EDUKIA, SAILKAPENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

II. KAPITULUA. TITULARTASUNA, ESKUMENAK ETA AHALMENAK

III. KAPITULUA. ONDARE ESKUBIDEAK, BABESA ETA DEFENTSA

1. ATALA. ARAU OROKORRAK

2. ATALA. JABEOA OFIZIOZ BERRESKURATZEA

3. ATALA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK IKERTZEA ETA IKUSKATZEA

4. ATALA. MUGAKETA ETA MUGARRITZEA

5. ATALA. KALERATZE ADMINISTRATIBOA

6. ATALA. ENBARGAEZINTASUNA, KARGAK, SEGURTATZEA ETA IZENA EMATEA

IV. KAPITULUA. INBENTARIOA

### **II. TITULUA. JABARI PUBLIKOKO LOTURAK, ATXIKITZEA ETA ALDAKETA**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA. LOTURAK ETA DESAFEKTAZIOAK

III. KAPITULUA. ATXIKITZEA ETA ATXIKITZEARI UZTEA

IV. KAPITULUA. JABARI PUBLIKOA ALDATZEA

### **III. TITULUA. ONDARE KUDEAKETA**

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

II. KAPITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK ESKURATZEA

1. ATALA. ARAU OROKORRAK
2. ATALA. KOSTU BIDEZKO ESKURATZEAK
3. ATALA. DOAKO ESKURATZEAK
4. ATALA. ERABILERA LAGAPENAK ONESTEA

### III. KAPITULUA. ONDASUNAK ALOKATZEA

### IV. KAPITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK BESTERENTZEA

1. ATALA. ARAU OROKORRAK
2. ATALA. KOSTU BIDEZKO BESTERENTZEA
  1. AZPIATALA. ARAU OROKORRAK
  2. AZPIATALA. KOSTU BIDEZKO XEDAPEN EKIMENETARAKO ESKUMENA
  3. AZPIATALA. KOSTU BIDEZKO XEDAPEN EKIMENETARAKO PROZEDURA
3. ATALA. DOAKO BESTERENTZEA

### V. KAPITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK TRUKATZEA

### VI. KAPITULUA. PRESKRIPZIOA

## **IV. TITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK ERABILTZEA ETA USTIATZEA**

### I. KAPITULUA. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK

1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK
2. ATALA. BAIMEN ETA EMAKIDEI BURUZKO XEDAPEN OHIKOAK
3. ATALA. JABARI PUBLIKOKO BAIMENEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK
4. ATALA. JABARI PUBLIKOKO EMAKIDEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK
5. ATALA. ERABILERAKO DOAKO LAGAPENAK
6. ATALA. JABARI PUBLIKOAREN ERRESERBAK

### II. KAPITULUA. ONDARE ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK

1. ATALA. KOSTU BIDEZKO APROBETXAMENDUA ETA USTIAPENA
2. ATALA. DOAKO ERABILERA LAGAPENA

## **V.TITULUA. ENPRESA ONDAREA**

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

II. KAPITULUA. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN PARTAIDETZAKO MERKATARITZA  
SOZIEATEENTZAKO XEDAPEN BEREZIAK

## **VI. TITULUA. SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEKIKO HITZARMENAK**

**VII. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA ETA KALTE GALERENGATIKO  
ERANTZUKIZUNAREN ARAUBIDEA**

**XEDAPEN OSAGARRIAK**

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**AZKEN XEDAPENAK**

## ZIOEN AZALPENA

Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10-7. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen osoa ematen zaio arlo honetan: “*Autonomia Erkidegoaren titulartasunekoak diren jabari publikoko ondasunak eta ondare ondasunak...*”. Era berean, Lege beraren 37.3. artikuluan Lurralde Historikoetako foru organoei berariazko eskumena ematen zaie beraien lurraldeko hauen gainean: “*Probintzia eta udalerrietako ondasunen araubidea, jabari publikokoak, ondarekoak edo propioak eta herrikoak*”.

Aurretik zehaztutakoa aplikatuz, Autonomia Erkidegoko erakunde autonomoen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) artikuluan ezarri zen lurralde historikoetako foru organoek berariazko eskumena dutela hauetarako: “*7. Probintziako eta udalerrietako ondasunen araubidea, bai jabari publikokoak badira, zein ondarekoak edo norberarenak eta herri ondasunak badira ere*”.

Horri jarraiki, 8.1.a) artikulua arabera lurralde historikoetako berariazko eskumenen barne daude honakoak: “*Araubidea, foru organoetatik eratorritako arauak aplikatuz besteen aurretik*”:

Aurreko eskumena egikaritzuz, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoko ondasunei buruzko apirilaren 9ko 8/1987 Foru Araua onetsi zuten, eta horren bitartez, lehenengo aldiz foru sektore publikoak ondare jarduketako araubide esparrua izan zuten.

Ondoren, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoaren ondareari buruzko otsailaren 23ko 5/1988 Foru Araua onetsi zuten, aurreko Foru Araua indargabetu eta ordezkatu zuena hain zuzen ere.

Nahiz eta gaur egun indarrean dagoen 5/1988 Foru Araua eguneratzeko, sistematizatzeko eta osatzeko lanak egin diren, onetsi zenetik denbora pasatu da, eta harreman juridikoei eta ondasunei lotutako harreman berriak agertu dira, beste batzuk aldatu egin dira, eta erakundeak antolatzeke forma berriak sortu dira. Beraz, aipatutako Araua eguneratzea beharrezkoa da. Horretarako, aukera gomendagarriena, argiena eta segurtasun juridiko handienekoa foru arau berri bat egitea da, gaia osorik arautuko duena eta gaur egun indarrean dagoen foru araua eguneratu, osatu eta ordeztuko duena hain zuzen ere.

Beste alde batetik, zalantzagabekoa da ondarearen kudeaketak daukan garrantzia eta konplexutasuna, gai honen arautzea sinplifikatu eta eguneratzeko behar asko erakarri duena aipaturako kudeaketan eraginkortasun eta arrazionaltasun handiagoa erdiesteko asmoz.

Ondorioz, helburu horiek bete nahi ditu Foru Arau honek.

Ildo horretan, aurreko araubidearekiko aldaketa nabarienak honako alderdietan egin dira:

- “Foru Ondarea” kontzeptua gehitu da “Arabako Lurralde Historikoko Ondasuna” kontzeptuaren ordean, Lurralde Historikoko araubide erkatuarekin bat eginez.
- Arauaren eremu subjektiboa zehaztasunez definitu da, eta testuan erakunde antolamenduko forma berriak gehitu dira, besteak beste partzuergoak.
- Horien garrantzia kontuan hartuz, arauaren aplikazio eremu subjektiboa osatzen duten erakundeen inbentarioari lotutako guztia modu garatuagoan arautu da.
- Jabari publikoko aldaketa objektiboen eta subjektiboen araubidea ezarri da.
- Ondasun higiezinaren eskuratzeko eta besterentze inguruabar berriak gehitu dira legeriaren garapenarekin eta ondare eta hirigintza negozioen forma juridiko berrien agerpenarekin bat eginez.
- Jabari publikoko ondasunen eta eskubideen erabilera eta ustiapena sakontasun gehiagoz arautu da, zehazki jabari publikoko baimenak eta emakidak.
- Arabako sektore publikoaren enpresa ondarea arautzen duen titulu guztiz berria gehitu da, baita sektore publikoko erakundeekin egiten diren hitzarmenak arautzen dituen beste bat ere.
- Zehapen araubidea eta kalte-galerengatik erantzukizuna segurtasun juridiko gehiagorekin arautu dira.
- Era berean, ondare esparru horretako jarduketak egiteko organo eskumenduna arautzen duten zenbatekoak eguneratu dira.
- Bukatzeko, arauaren testuan hizkera ez sexista erabiltzeko egokitzapenak egin dira.

Foru Arau honek 125 artikulua ditu zazpi tituluetan banatuta. Horrez gain, hiru xedapen osagarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bukaerako bi xedapen ditu.

Lehenengo tituluan xedapen orokorrak arautzen dira. Lehenengo titulu horren lehenengo kapituluan arauaren esparrua, edukia, sailkapena eta araubide juridikoa ezarri dira, bigarrenean ondasun eta eskubideen titulartasuneko kontzeptuak, erakundeen eskumenak eta ahalmenak ezarri dira, hirugarrenean ondarearen eskubideak, babesa eta defentsa arautu dira, eta laugarrenean inbentarioarekin lotutakoak arautu dira.

Bigarren tituluan foru ondarearen ondasun eta eskubideen jabari publikoaren lotura, atxikitzea eta aldatzea arautu dira.

Hirugarren tituluan ondare kudeaketa arautu da. Lehenengo kapituluan arau orokorrak gehitu dira, eta hurrengoetan honako arloak arautu dira: Ondasunak eta eskubideak eskuratzea (II.kap.), ondasunak alokatzea (III. kap.), Ondasunak eta eskubideak besterentzea (IV.kap.), Ondasunak eta eskubideak trukitzea (V. kap.), eta Preskripzioa (VI. kap.).

Laugarren titulua ondasunak eta eskubideak erabili eta ustiatzeari buruzkoa da. Laugarren tituluko bi kapituluetan jabari publikoko ondasunak eta ondare ondasunak jorratzen dira, hurrenez hurren.

Bosgarren tituluan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren enpresa ondarea arautzen da.

Seigarren titulua sektore publikoko erakundeekiko hitzarmenak arautzeko da, eta bukatzeko, azkeneko zazpigarren titulua foru ondarearen alorreko zehapen araubideari eta kalte-galerengatikiko erantzukizunari buruzkoa da.

## **I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **I. KAPITULUA. EREMUA, EDUKIA, SAILKAPENA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

#### **1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

1. Foru Arau honen bitartez Foru Ondarea osatzen duten jabari publikoko ondasunen eta eskubideen araubidea eta jabari pribatuko ondasunen eta eskubideen araubidea zehazten dira.

2. Foru Arau honen aplikazio eremu subjektiboa hauxe da:

- a) Arabako Foru Aldundia.
- b) Arabako Batzar Nagusiak.
- c) Foru erakunde autonomoak.
- d) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
- e) Foru administrazio partzuergoak.

Foru administrazio partzuergoak Arabako Foru Aldundiaren sailalara atxikita daudenak dira, hau da, foru sektore publikoko administrazioaren barne daudenak, eta hala, honako bi baldintzetatik gutxienez bat betetzen dute:

- Jarduera nagusia ez izatea merkatu legearen arabera kontsumo indibidual edo kolektiborako ondasunak eta zerbitzuak ekoiztea; edo, bestela, errenta eta aberastasuna birbanatzeko eragiketarako egitea, betiere irabazi asmorik gabe.

- Finantzaketa gehienbat merkataritzako diru sarreretatik ez jasotzea; Foru Arau honi dagokionez, merkataritzako diru sarrerak izango dira ondasun emate eta zerbitzugintzen ordain gisa jasotako diru sarrerak, edozein izaeratakoak direla ere.

3. Foru sozietate publikoen, foru fundazioen, enpresa foru sektore publikoko partzuergoen (Arabako Foru Aldundiaren sail bati atxikita daudenak eta aurreko atalean zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztenak) eta Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten izaera juridikoko erakundeen ondasunak eta eskubideak ez dira Foru Arau honetako xedapenei lotuta egongo, Arau honen 22. artikuluan, horiek sortzeko arauan, eta aplikatu beharreko bestelako arauetan xedatutakoa albo batera utzi gabe.

## **2. artikulua.- Araubide juridikoa**

1. Foru ondarea Foru Arau honek, oinarrizko araubideak (ondare alorrean aplikazio ohikoa dutenak), Arau hau egikaritzeko eta garatzeko aginduko diren xedapenek eta aplikatu beharreko zuzenbide publikoko eta pribatuko arauak zehaztuko dute.

2. Administrazio legeria espezifikoren menpe dauden foru ondareko ondasunak eta eskubideak arau propioek arautuko dituzte.

### **3. artikulua. Edukia**

Foru ondarea osatzen dute edozein tituluren arabera Foru Arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeak diren edo erakundeoi atxikitzen zaizkien ondasun eta eskubide guztiek.

### **4. artikulua. Sailkapena**

Foru ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak herri jabariko edo jabari publikoko eta ondare ondasunen edo jabari pribatuko ondasunen artean sailkatzen dira.

### **5. artikulua. Herri ondasun eta eskubideak edo jabari publikokoak**

1. Herri ondasun eta eskubideak edo jabari publikokoak dira foru ondarea osatzen dutenak eta erabilera orokorraren edo zerbitzu publikoaren menpe daudenak. Horrez gain, lege batek edo foru arau batek berariaz jabari publikoko izaera ematen dienak ere multzo horretan egongo dira.

2. Foru sektore publikoko erakundeen egoitza diren eta foru ondarea osatzen duten higiezinak, hala nola erakunde hauen instalazioak, herri erabilera edo zerbitzura zuzenduta daudela ulertuko da beti ere.

3. Jabari publikoko ondasunen eta eskubideen kudeaketak eta administrazioak honako printzipioak beteko dituzte:

- a) Besterenezintasuna, bahiezintasuna, preskribaezintasuna.
- b) Egokitzapena eta ondasunen nahikotasuna xede duten erabilera orokorra edo zerbitzu publikoa betetzeko.
- c) Erabilera orokorrean edo zerbitzu publikoan eraginkortasunez aplikatzea, behar bezala justifikatutako interes publikotik eratorritako salbuespenez gain besterik ez dutenak.
- d) Erabilera komuna erabilera pribatuaren aurretik lehenestea.
- e) Lege honek edo bestelako lege bereziek administrazio publikoei emandako eskumenak arduraz erabiltzea, horien kontserbazioa eta integritatea bermatuz.



- f) Inbentario edo erregistro egokien bitartez identifikatzea eta kontrolatzea.
- g) Administrazio publikoak lankidetzan eta elkarri lagunduz aritzea jabari publikoko eskumenak egikaritzean.

## **6. artikulua. Ondare ondasun eta eskubideak edo jabari pribatukoak**

1. Ondare ondasunak eta eskubideak edo jabari pribatukoak izango dira foru ondarearen barne egonik jabari publikokoak ez direnak.

2. Hauek dira Foru Ondarearen barneko jabari pribatuko ondasunak eta eskubideak:

- a) Erabilera edo zerbitzu publikora zuzenduta ez dauden ondare ondasunak.
- b) Errentamendu eskubideak eta besterenaren gaineko beste edozein eskubide.
- c) Jabetza gorpuzgabearen eskubideak.
- d) Arabako Foru Aldundia edo Batzar Nagusiak titularrak diren sozietate publiko edo pribatuen akzioak, partaidetzak eta betebeharrak.
- e) Jabari pribatuko ondasunen titulartasunetik eratorritzen diren eskubideak.
- f) Enparatuko lursailak eta erabili ezin daitezkeen ondasunak.
- g) Foru ondarea osatzen duen eta jabari publikokotzat hartzen ez den beste edozein ondasun eta eskubide.

3. Enparatuko lursailak beren zabalera txikiagatik, forma irregularra dutelako edo beren kokalekua tarteko dela, egokiro erabili ezin diren lurzatiak dira.

4. Ondasun erabili ezinak beren narriadura, balio galera edo kontserbazio egoera txarragatik zerbitzu publikoei edo aprobetxamendu normalari aplikaezinak zaizkien ondasun guztiak dira, Inbentario Nagusian egon arren.

5. Ondare ondasunen eta eskubideen kudeaketak eta administrazioak honako printzipioak beteko dituzte:

- a) Kudeaketan eraginkortasuna eta ekonomia egotea.
- b) Ondasun eta eskubide horiek ustiatzean eraginkortasuna eta errentagarritasuna egotea.
- c) Publizitatea, gardentasuna, lehia eta objetibotasuna ondasun horiek eskuratzean, ustiatzean eta besterentzean.

- d) Inbentario edo erregistro egokien bitartez identifikatzea eta kontrolatzea.
- e) Administrazio publikoak lankidetzan eta elkarri lagunduz lan egitea ondasunen erabilera eta errendimendua optimizatzeko.

## **II. KAPITULUA TITULARTASUNA, ESKUMENAK ETA AHALMENAK**

### **7. artikulua. Titulartasuna**

1. Arabako Foru Aldundiak izango du foru ondarea osatzen duten ondasun higiezinaren jabetza, eskubide errealeen eta higiezinaren alokairuen titulartasuna eta jabetza gorpuzgabearen eskubideen titulartasuna, horiek erabiltzen, sortzen edo jasotzen dituen erakundea edozein izanda ere.

2. Gainerako foru ondarearen barneko ondasunen eta eskubideen jabetza titulartasuna horiek eskuratu dituen pertsona juridikoak izango ditu, eta Foru Arau honek aintzatetsitako eskumenak eta ahalmenak izango ditu horien gainean.

3. Foru organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoei eta administrazio foru partzuergoei atxikitako ondasunek eta eskubideek jatorriko izendapena gordeko dute foru ondarearen ondasun diren heinean, hori aldatzeko eskumenak dituen organoak berariazko ebazpena eman ezean.

4. Foru organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta administrazio foru partzuergoek ezin izango dituzte horien ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratu, besterendu edo eskuragarri izan. Hala, eskumen horiek Arabako Foru Aldundiak egikarrituko ditu dagokion organoaren bitartez eta dagozkion eskudantziak erabiliz, albo batera utzi gabe bakoitzari dagozkion ondasunen eta eskubideen atxikitzea.

Era berean, erakunde horiek ezin izango dira sozietate publiko edo pribatuko akzioen, partaidetzen eta betebeharren titularrak izan.

### **8. artikulua. Ondasunak eta eskubideak administratzea**

1. Foru Ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen gaineko nagusigo ahalmenen erabilera Arabako Foru Aldundiari dagokio, Diputatuen Kontseiluaren edo ondarean eskumenak dituen Foru

Aldundiko Sailaren bidez, honako Foru Arau honetan ezarritako eskuduntza erregimenaren arabera, eta Foru Arau honetan aurreikusitakoari jarraiki atxikitzen edo lagatzen zaizkien jabari publiko zein pribatuko ondasunei dagokienez beste zenbait erakundeek dituzten eginkizunak eta erantzukizunak albo batera utzi gabe.

2. Arabako Foru Aldundiko sailei, foru erakunde autonomoei, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoei eta administrazio foru partzuergoei dagokie erabiltzen dituzten edo atxiki zaizkien ondasunen eta eskubideen administrazioa, honako Foru Arau honetan ezarritakoaren arabera.

3. Foru Gobernu Batzordearen erabakiak eta organo eskumendunen ebazpenak egikaritzea ondare alorrean eskumenak dituen sailaren ardura izango da, dagozkion ebazpenetan kontrakorik adierazi ezean.

4. Arabako Foru Aldundiari sozietateetako partaide den heinean dagozkion eskubideen egikaritzea Foru Arau honen 109. artikuluan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Foru erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta foru administrazio partzuergoen kasuan, aurreko paragrafoetan aipatutako eskubide eta ahalmenen erabilpena berauen arau erregulatzailerik zehazten duten organoari dagokio, eta horrelakorik ezean, bere legezko ordezkariari.

## **9. artikulua.- Arabako Batzar Nagusien ondare autonomia**

1. Batzar Nagusiek ondare autonomia dute, eta Foru Arau honetan ezarritakoa betez, Arabako Foru Aldundiak atxikita dituen, atxikiko zaizkion edo edozein titulu dela-eta jasotzen dituen ondasun eta eskubideen gainean dituen eskumen eta ahalmen berak izango dituzte; horiek eskumenak dituen organoaren bitartez egikarituko dituzte, araubidearekin bat eginez.

2. Arabako Batzar Nagusiei atxikitako edo horiek eskuratutako ondasunen eta eskubideen titulartasuna edonola ere Foru Ondarearen barnekoa izango da, eta Foru Arau honetarako ezarritako araubidea beteko du.

3. Batzar Nagusiek ondare alorrean eta bereziki ondasun higiezin, eskubide errealeen eta higiezin alokairuen eta jabetza gorpuzgabearen gainean egiten diren notariotza edo administrazio

formalizazioan eta negozio juridikoen erregistro izen emateetan izango duten judizioz kanpoko ordezkapena horretako eskumenak dituen organoak gauzatuko du.

4. Batzar Nagusiek beraien titulartasuneko ondasunak jasotzen dituen ondasunen eta eskubideen inbentarioa izango dute. Era berean, urtero onetsitako inbentarioa bidaliko dute Arabako Aldundiko ondare eskumenak dituen sailera, Inbentario Nagusia osatzeko helburuarekin.

## **10. artikulua. Ordezkaritza**

1. Edonola ere, ondarearen alorrean eskumenak dituen organoak ordezkatu beharko du judizioz kanpo Arabako Foru Aldundia ondareari buruzko alorretan.

Eskritura publikoak eta ondareari buruzko gainerako dokumentu publikoak edo pribatuak ematean Arabako Foru Aldundia ondare eskumenak dituen foru diputatuak ordezkatuko du. Hala ere, Foru Gobernu Batzordeak edo sail horretako titularrak, hurrenez hurren, eskumen hori beste sail eta/edo zuzendaritza batzuen titularrei eman ahal izango die.

2. Ondare alorrean eskumenak dituen saila Foru Ondarearen ondasun edo eskubideak erabiltzen dituzten foru sektore publikoko erakunde guztietan ordezkatua izango da.

## **11. artikulua. Tasazioak**

1. Tasazioek, balorazioek, entzunaldiek, lan teknikoek eta Foru Arau honetan jasotako xedapenak betetzeko egin behar diren gainerakoek eta aplikatu beharreko beste guztiek zehaztu egin beharko dituzte oinarri dituzten parametroak, eta Arabako Foru Aldundiko funtzionarioek gauzatuko dituzte lan horiek. Langile horiek era berean jorratu beharreko ondasun edo eskubideen gaineko titulu egokia izan beharko dute, eta Arabako Foru Aldundiak bitartekorik ez baldin badu edo bitarteko horiek nahikoak ez baldin badira, kanpo kontratazioak egiteko aukera egongo da.

2. Espedientea ebazteko eskumenduna den organoak aldatu egin dezake tasazio hori aldaketa behar bezala arrazoituz gero; aldaketa ondoko kasuetan egin daiteke: aurreko tasazioak ez duenean behar bezala justifikatzen zenbait elementu erabakigarriren balorazioa, higiezinaren aparteko egokitasuna dela-eta administrazioarentzat ematen zaion balioa ez denean merkatu balioa, edo tasazioan

hauteman ez diren egitateak edo gertaerak daudenean.

3. Tasazioek bi urteko balio epea izango dute egiten direnetik aurrera zenbatzen hasita, salbuetsiz legez beste balio epe bat dutenak. Hala ere, egokitasun arrazoiak direla eta tasazio berri bat egiteko eskatzeko aukera egongo da epe hori bukatu aurretik, tasatutako ondasunaren balioa aldatu dela uste denean.

### **III. KAPITULUA. ONDARE ESKUBIDEAK, BABESA ETA DEFENTSA**

#### **1. ATALA. ARAU OROKORRAK**

##### **12. artikulua. Ondarea babesteko eta defendatzeko betebeharra**

Foru Arau honetako 1.2. artikuluan jasotzen diren erakundeek, Foru Arau honen beraren eta aplikagarria den gainerako araudiaren arabera, foru ondarea babestu eta defendatu beharra dute. Horretarako, modu egokian identifikatu behar dituzte ondare hori osatzen duten ondasun eskubideak, horiek erregistroan inskribatzen ahalegindu behar dira, eta aurreko guztia egiteko egokiak diren administrazio ahalak eta ekintza judizialak erabili edo sustatu behar dituzte.

##### **13. artikulua. Zaintza, lankidetzeta eta informazio betebeharra**

1. Foru Ondareko ondasun eskubideak beren kargura dituzten organoen titularrek ondasun eskubideok zaindu, kontserbatu eta osorik mantentzeaz arduratu behar dute.

Jabari publikoko edo jabari pribatuko ondasunen gaineko baimen, emakida, erabilera lagapen eta gainerako eskubideen titularrek ere betebeharrak izango dituzte.

2. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan jasotzen diren erakundeen zerbitzura dagoen pertsonalak Foru Ondareko ondasun eskubideen babes, defentsa eta administrazioan laguntzeko betebeharra du. Horretarako, ondarearen arloan eskumendunak dituzten organoek ondasun eskubideok direla eta eskatzen dituzten datu, txosten eta dokumentu guztiak eman behar dizkiete organo horiei, beren eskumenak egoki betetzeko behar duten laguntza eta lankidetzeta guztia eskainiko diete, eta

ondasunen osotasun fisikorako kaltegarriak izan daitezkeen edo organo horiek ondasun eskubideon gainean izan ditzaketen eskubideak urratu ditzaketen egitateak jakinaraziko dizkiete.

#### **14. artikulua. Eskubideak eta horien egikaritzea**

1. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan adierazitako erakunde publikoek, kapitulu honetan ezarritako arauak betez, honako eskubideak izango dituzte Foru Ondareari dagokionez:

- a) Edukitza ofizioz berreskuratzeko eskubidea.
- b) Ondasunak eta eskubideak ikertzeko eta ikuskatzeko eskubidea.
- c) Mugaketa eta mugarritze eskubidea.
- d) Kaleratze administratiboko eskubidea.

2. Zuzenbide pribatuko foru erakundeek artikuluko honen 1. atalean zerrendatutako eskubideak erabili ahal izango dituzte bakarrik jabari publikoko ondasunak defendatzeko.

3. Erakunde juridikoen eta pribatuen edonola ere ez dituzte egikaritutako kapitulu honetan ezarritako eskubideak. Ondasuna edo eskubidea horrelako erakunde bati atxikita dagoenean eta eskumena ondasun edo eskubide horri atxikita dagoenarena denean, Arabako Foru Aldundiak edo erakunde juridiko eta pribatuaren menpe dagoen erakunde publikoak edo atxikita dagoenak egikaritutako dituzten eskumen horiek.

#### **15. artikulua. Besteen ondasunen gaineko eskubideak**

Arabako Foru Aldundiak berreskurapen, ikerketa, mugaketa eta kaleratze eskubideak erabili ahal izango ditu bere titulartasunaren pean ez dauden ondasunen gainean, baldin eta berauek Foru Arau honetako 1.2. artikuluan adierazitako erakundeen emakida administratibo bati atxikita badaude, arriskua dagoela argi badu eta emakida beteko dela ziurtatu nahi bada. Espedientea ondasunen jabeei eta gainerako interesatuei entzunaldia emanaz izapidetu beharko da.

## **2. ATALA. JABETZA OFIZIOZ BERRESKURATZEA**

## **16. artikulua. Jabetza berreskuratzeko eskubidea**

1. Foru Arau honen 1.2. artikuluan jasotako erakundeek edozein unetan berreskuratu ahal izango dute Foru Ondasuneko jabari publikoko ondasun eta eskubideen bidegabeki galdutako jabetza.

2. Ondare ondasunen eta eskubideen kasuan, horiek berreskuratzeko epea urtebetekoa izango da, bidegabeki sortutako galeraren berri izaten den dataren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan, ekintza ohiko jurisdikzioaren babespean bakarrik gauzatu ahal izango da.

3. Horrelako espedienteak hasteko eta onesteko eskumena ondare alorrean eskumenak dituen sailaren ardura izango da, eta hala, ondasuna edo eskubidea atxikita dituen sailak ezagutzen dituen egitate guztiak eman beharko ditu, baita espedientea izapidetzeko beharrezkoak diren txosten, agiri edo titulu guztiak ere.

4. Okupatzaileak ez badio bere borondatez kasurik egiten kaleratzeko errekerimenduari, ondasunaren edo eskubidearen jabetza berreskuratzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat eginez.

5. Segurtasun Indar eta Kidegoen martxoaren 13ko 2/1986 Legean eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean xedatutakoarekin bat eginez, Ertzaintzaren edo beste segurtasun indar eta kidegoen laguntza eska daiteke okupatzailea botatzeko, edo okupatutako ondasunen balioaren ehuneko bosta arteko kopurua hertsatzeko isunak jar daitezke; isun horiek hamabost egun balioduneko epeetan errepikatuko dira, ondasuna uzten den arte. Aurreko kasuetan, pertsona usurpatzailearen konturakoak izango dira berreskuratzeko prozesuaren ondorioz eragiten diren gastuak; gastu horiek eta usurpatutako ondasunei sortarazitako kalte-galerak ordainarazteko premiamendu prozedura erabil daiteke.

6. Ez da interdikturik onartuko Arabako Foru Aldundiak gai honetan gauzatutako ekintzen aurka, betiere berauek lege ezarritako prozedurari egokitu bazaizkio.

7. Atal honetan aipatutako egintzek delitu itxura baldin badute, Arabako Foru Aldundia hauek dagokion epailetzako aginteari jakinaraztera behartuta egongo da.

### **3. ATALA. ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN IKERKETA ETA IKUSKARITZA**

#### **17. artikulua. Ikertzeko eta ikuskatzeko eskubidea**

1. Foru Arau honen 1.2. artikuluan jasotako erakundeek Foru Ondarearen ustezko ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko eta ikuskatzeko ahalmena izango dute, horien titulartasunaren berri ez duenean, titulartasun hori zehazteko.

2. Ondare arloan eskumenduna den sailari dagokio ustez Arabako Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren ondasun eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena.

3. Pertsona fisiko eta juridiko oro, publikoa zein pribatua, dago behartuta atal honek aipatzen dituen ikerketa eta ikuskaritzan laguntzera, ondare alorreko sail eskumendunak horrela eskatzen badie, beronek egokitzat jotzen dituen datu, txosten edo berriak eskatu ahal izango baitizkio.

4. Arabako Foru Aldundiaren tokiko erakundeek Arabako Foru Aldundiaren ondare alorrean eskumenak dituen sailari jakinarazi beharko dizkie udal mugartean edo kontzeju mugartean sortutako eta foru ondarearen ondasunak hondatzen edo narriatzen dituzten gertakariak eta jarduketak.

5. Derrigorrezkoak diren argitalpenak eta bestelako jakinarazpenak albo batera utzi gabe, Foru Arau honen 1.2. artikuluan zehaztutako erakundeen ondasunei eragiten dien hirigintza antolamenduko tresnen hasierako onespina, behin-behinekoa eta behin betikoa Arabako Foru Aldundiaren ondasun alorrean eskumenak dituen sailari jakinarazi beharko zaizkio.

6. Gauzatutako ikerketa dela bide sortzen diren izaera zibileko kontuen ezagutza ohiko eskumenari dagokio.

Ikerketa espedienteari bukaera ematen dion ondare alorrean eskumenak dituen sailaren ebazpenari prozedura hausteagatik bakarrik egin ahal izango zaio aurka administrazioarekiko auzi bidez.

### **4. ATALA. MUGAKETA ETA MUGARRITZEA**



## **18. artikulua.- Mugatzeko eta mugarritzeko eskubidea**

1. Arabako Foru Aldundiak Foru Ondarea osatzen duten ondasunen mugaketa sustatu eta gauzatzeko ahalmena du; berau prozedura administratiboaren bitartez gauzatuko da, eta bertan interesdunei entzunaldia emango zaie.

2. Behin mugaketaren prozedura administratiboa hasita, ezin izango da prozedura judiziala egitea eskatu helburu berarekin, eta ez da mugaketak ukitzen dituen finken jabe egoerari buruzko interdikturik onartuko, berau gauzatzen ez den bitartean.

3. Mugaketa espedientea egitea eta onestea ondarearen alorrean eskumenak dituen sailari dagokio, eta egikaritzea dagokien sail teknikoek gauzatuko dute.

4. Ondarean eskumenak dituen sailaren ebazpena betearazlea izango da eta prozedura hausteagatik baino ezin izango zaio aurka egin administrazioarekiko auzi prozesuaren bitartez; horrek beren eskubideetan kalte egin diela uste duten guztiek ohiko jurisdikzioaren aurrean eskubideok defendatzeko izango duten aukera ez du inolaz ere baztertzen.

5. Mugaketaren onarpen erabakia irmoa denean ondasunak mugarritzeari ekingo zaio interesatuak bertan daudela.

6. Mugaketak ukitzen duen finka Jabetza Erregistroan erregistratuta badago, mugaketa administratiboa ere erregistratuko da behar bezala onartu ondoren.

Bestela, beronen erosketa tituluaren, edo horrelakorik ezean, igorritako egiaztagiriaren inmatrikulazio edo aldez aurretiko erregistroa egingo da indarrean diren hipoteka legeetan xedatutakoaren arabera, eta jarraian mugaketa erregistratuko da.

7. Jabari publikoko mugaketa espediente batean enparatuko lur eremuak geratzen direnean, berauek Foru Ondarearen jabari pribatuan sartuko dira.

8. Arabako Foru Aldundiak Foru Ondarea osatzen duten ondasun higiezin mugarriztatzea sustatzeko eskumena du.

## **5. ATALA. KALERATZE ADMINISTRATIBOA**

### **19. artikulua. Kaleratzeko eskubidea**

1. Arabako Foru Aldundiak bide administratiboan berreskuratu ahal izango du bere jabari publikoko ondasunen jabetza titulurik ez dagoenean edo hirugarrenek horiek okupatzea legitimatzen zuten baldintzak edo inguruabarrak indargabetzen edo desagertzen direnean.

2. Kaleratzeko eskubidea erabili ahal izateko, aurretik, jabari publikoko ondasunak erabiltzeko eskubidearen titulua azkendu edo iraungi egin dela adierazi beharko da.

3. Espedientea hastea eta izapidetzea, eta aurretik adierazitako titulua ez egotea, azkentzea edo iraungitzea zehazten duen adierazpena egitea ondare alorrean eskumenak dituen sailaren ardura izango da, hurrengo atalean aurreikusitakoarekin bat eginez.

4. Interesdunei entzun ondoren, titulua ez dagoela, azkendu edo iraungi egin dela deklaritzen duen organoak berak, egintza berean edo beste batean, epe bat zehaztuko du ondasuna uzteko eta, horrekin batera, edukitza bidegabeki duena ohartaraziko du -eta hori egitearekin, eraginpean dauden guztiak ere bai- adieraziz epe horretan ez badu ondasuna bere borondatez uzten epea igarotakoan kaleratzea erabakiko duela ondarearen alorrean eskumenak dituen organoak, eta hori ebatzea titularraren ardura izango da. Eskumenak dituen jurisdikzioan jarduketa judizialak egitea beharrezkoa baldin bada, horiek funtzioak ezarrita dituen organoak gauzatuko ditu.

5. Arabako Foru Aldundiaren Gordailuen Kutxa Nagusian zenbatekoa indemnitzatu, ordaindu edo kontsignatu behar bada, hori kaleratze aginduaren aurretik gauzatuko da.

6. Ondasuna uzteko emandako epea igarotakoan, kaleratzea erabakitzeko eskumena organoak kaleratzea aginduko du eta edukitza duena ohartaraziko du -eta hori egitearekin, eraginpean dauden guztiak ere bai- adieraziz kaleratzea egingo dela edo hertsatzeko isuna jarriko zaiola, hamabost egun baliodun baino gutxiagoko epean. Epe hori igarota, kaleratzea edo hertsatzeko isuna jartzea erabaki dezake.

7. Segurtasun Indar eta Kidegoen martxoaren 13ko 2/1986 Legean eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean xedatutakoarekin bat, okupatzailea botatzeko Ertzaintzaren

edo beste segurtasun indar eta kidegoen laguntza eska daiteke; horretarako, nahikoa izango da organo jardulearen idatzizko agindua (haren kopia emango zaio jabetza duenari) eta, hala badagokio, dagokion baimen judiziala izatea.

8. Hertsatzeko isunak jartzen badira, isunok okupatutako ondasunen balioaren % 5 artekoak izan daitezke, eta isun horiek hamabost egun balioduneko epeetan errepikatu daitezke, ondasuna uzten den arte.

9. Bidegabeko edukitzailearen konturakoak izango dira ondasuna utzaraztearen eta kaleratzearen ondorioz eragiten diren gastuak; gastu horiek eta sor litezkeen kalte-galerak ordainarazteko premiamendu prozedura erabili daiteke.

## **6. ATALA. ENBARGAEZINTASUNA, KARGAK, TRANSAKZIOAK ETA ARBITRAJEAK, ASEGURATZEA ETA IZENA EMATEA**

### **20. Artikulua. Enbargaezintasuna**

Epaitegiek eta administrazio agintaritzek ezingo dute enbargo probidentziarik eman eta ezin izango dute ezta ere Foru Ondarearen jabari publikoko ondasunen eta eskubideen aurkako egikaritze agindurik ebatzi.

### **21. artikulua. Kargak, transakzioa eta arbitrajea**

1. Foru Ondarearen ondasunen eta eskubideen gaineko kargarik ezin izango da ezarri horien besterentzeko Foru Arau honen IV. kapituluko III. tituluaren ezarritako baldintzarik gabe.

2. Jabari pribatuko ondasun eta eskubideei buruzko transakzioek, hala nola berauei buruzko eztabaida edo auzien arbitrajei men egiteak, Foru Gobernuaren Kontseiluak emandako alde zuzeneko aurretiko aldeko erabakia izan beharko dute, ondare alorrean eskumenak dituen sailaren titularraren

proposamenez.

## **22. artikulua.- Ondasunak aseguratzea**

1. Arabako Foru Aldundiaren, foru organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta foru administrazio partzuergoen ondasun higigarrien eta higiezinaren integritatea bermatzeko, eta horiek izan ditzaketen edo sortu daitezkeen arriskuen arabera, ondare alorrean eskumenak dituen sailak beharrezko aseguru polizak eta legez edo arauz horiek erabiltzearen edo izatearren baimendutako erakundeekin eragiketa horiek egiteko sinatu beharrekoak kontratatu ahal izango ditu.

2. Foru Arau honen 1.3. artikuluan adierazitako foru sektore publikoko erakundeek aurreko atalean zehaztutako aurreikuspen neurriak hartu beharko dituzte beraien ondarea osatzen duten ondasunei dagokienez. Dena dela, aipatutako erakundeei atxikitako Foru Ondarea osatzen duten ondasunen kasuan, ondare alorrean eskumenak dituen sailak ondasun horiei aseguru egiteko aurreko lerroaldean esleitzen zaion eskumena erabili ahal izango du; aseguruetako sarien zenbatekoa ordaintzea dagokion erakundearen esku geratzen da.

## **23. artikulua.- Erregistroan izena ematea**

1. Arabako Foru Aldundiak dagokion erregistroan inskribatuko ditu bere titulartasuneko ondasunak eta eskubideak, jabari publikokoak edo ondarekoak, ondasun izan daitezkeenak baita ere eta horrez gain, dagokion erregistrarako sarbidea izan dezaketen ekimen eta kontratuak ere inskribatu egingo ditu.

Edonola ere, inskripzioa hautazkoa izango da hipoteken gaineko legeriaren arabera inskriba daitezkeen errentamenduen kasuan.

Jarduketak ondare alorrean eskumenak dituen sailak edo beste sail edo erakundeek gauzatuko dituzte, Foru Arau honek, egitura organikoko dekretuek edo erakundearen sortze, funtzionamendu edo antolamendu arauak organo horiei ematen dizkien eskumenekin bat eginez.

2. Desjabetzeko prozeduretan, berriz, espedientea izapidetzeko ardura duen sailak eskatuko ditu

desjabetuko diren ondasun eskubideei dagozkien erregistroko inskripzioak, eta inskripzio horien berri emango dio ondare arloan eskumenduna den sailari, inbentarioan jasota gera daitezten.

3. Ondasun higiezin, horien eskubide errealen, higiezin alokairuen eta jabetza gorpuzgabearen eskubideen izen ematea erregistro publikoetan Arabako Foru Aldundiaren izenean egingo da, betiere titularrak Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako erakundeak baldin badira.

#### **IV. KAPITULUA. INBENTARIOA**

##### **24. artikulua. Inbentarioa eratzeko betebeharra eta Foru Ondarearen ondasunen eta eskubideen Inbentario Nagusiaren izaera**

1. Foru Ondarearen ondasun eta eskubideen Inbentario Nagusia, aurrerantzean Inbentario Nagusia, ondare kudeaketari laguntzeko tresna da. Bertan jasota daude Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazten diren erakundeen ondasunak eta eskubideak, eta era berean, ondasun eta eskubide horien babes juridikoa eta ekonomikoa bermatzeko tresna da.

2. Arabako Foru Aldundiak Inbentario Nagusia sortuko du Foru Arau honen terminoen arabera, eta albo batera utzi gabe artikulua honen 4. eta 5. ataletan erakundeei buruz adierazitakoak banatutako inbentarioei dagokienez. Ondare alorrean eskumenak dituen sailak sortu eta eguneratu beharko du Inbentario Nagusi hori.

3. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeek beren titulartasuneko ondasunak eta eskubideak inbentariatu egin behar dituzte, eta jasota utzi behar dituzte, behar besteko zehaztapenarekin, bai ondasunak eta eskubideak identifikatzeko beharrezkoak diren aipamenak, bai eta ondasunen eta eskubideen egoera juridikoa eta xedatzeko mugak zein atxikita dauden saila edo erakundea ere.

4. Foru Aldundiarenak ez diren eta 1.2. artikuluan agertzen ez diren erakundeen inbentarioak, hau da, Foru Arau honetan adierazitako ondasunei eta eskubideei buruzkoak direnak aurreko atalekin bat eginez, Inbentario Nagusiaren barnekoak dira, eta horien titulartasuna haiei dagokie. Hala,

erakundeko ondare kudeaketa gauzatzen duen organoak sortu eta eguneratuko ditu, eta horretarako Inbentario Nagusiarentzako ezarritako sortze, eguneratze eta euskarri irizpideak jarraituko dituzte.

Era berean, erakunde horiek urtero onetsitako inbentarioa bidaliko dute Arabako Foru Aldundiko ondare eskumenak dituen sailera, Inbentario Nagusia osatzeko helburuarekin.

5. Inbentario Nagusia sortzeko eta eguneratzeko foru sailek halabeharrez eta arauz ezarritako moduan, ondare alorrean eskumenak dituen saileko organoari jarduketan berri eman beharko die.

Horien artean egongo dira altak, aldaketak, mota guztietako aldakuntzak edo inbentarioko bajak, eta horren berri eman beharko da zehaztutako epean, arauz ezarritako edo horretarako eskatutako datuak, informazioa eta dokumentazioa aurkeztuz.

6. Inbentario Nagusia ez da erregistro publikoa izango, eta bertan jasotako datuak barne kudeaketari laguntzeko informazioa izango dira.

Datuok ez dute ondoriorik izango hirugarrenen aurrean, eta ezin izango dira erabili Foru Arau honetako 1. artikuluan zehazten diren erakundeen aurrean eskubideez baliatzeko. Hirugarrenek inbentarioko datuak kontsultatzea soilik izango da bidezkoa datuok espediente baten parte badira eta, betiere, datuotara jotzeko arau orokorrekin bat eginez.

## **25. artikulua. Inbentario Nagusiaren irismena eta edukia**

1. Inbentario Nagusian banatuta jasoko dira ondasunak eta eskubideak arauz ezarritako kategorien arabera, eta gutxienez, ondasun eta eskubide hauek jasoko dira, bai jabari publikokoak, baita ondarearenak ere:

- a) Ondasun higiezinak eta horien eskubide errealak.
- b) Alokairu eskubideak eta bestelako eskubide pertsonalak. Horien arabera Arabako Foru Aldundiari edo 1.2. artikuluan adierazitako erakundeei besteen ondasunak erabiltzeko edo disfrutatzeko baimena emango zaie.
- c) Ondasun higigarriak eta eskubide eta jabego gorpuzgabeak.
- d) Balio higigarriak eta merkataritza sozietateen kapitalaren akzioen eta partaidetzen ordezkariak edo horiek emandako betebeharrenak.

e) Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko azpiegitura publikoak.

2. Ez dira inbentario honen barne egongo 1.000 euro baino gutxiagoko balio unitarioa duten ondasun higigarriak. Hori guztia albo batera utzi gabe, ondasun mota bakoitzean eskumenak dituzten sailek dagozkien erregistroak edo katalogo osagarriak egitea.

## **26. artikulua. Inbentario Nagusia onartu, aldatu eta eguneratzea**

1. Foru Gobernuaren Batzordeak izango du Inbentario Nagusia eta artikulua honen 3. atalean aipatzen diren eguneraketak onartzeko eskumena.

2. Inbentario Nagusiko informazioan gertatzen diren aldaketak bertan islatuko dira ondare alorrean eskumenak dituen sailak horien berri izan ahala.

3. Urtean behin ondare alorrean eskumenak dituen sailak Inbentario Nagusia eguneratuko du, kontu orokorrean, aurreko eguneratzeetik ondasun eta eskubideetan gertatutako mota guztietako aldaketak jasoz.

## **27. artikulua. Inbentario Nagusiaren euskarria**

Inbentario Nagusia kudeatzeko bertan jasotako datuen autentikotasuna eta egiazkotasuna bermatzen duten sistema informatikoak erabiliko dira.

Inbentarioan jasotako ondasunei eta eskubideei dagokienez, horien titulartasuna duten edo formalizatzen duten agiri, eskritura publiko, kontratu eta antzeko guztiak modu ordenatuan batu eta artxibatuko dira, baita, nahi izanez gero, ondasun eta eskubide horiekin harremana duten dokumentu ofizialak eta ofizialak ez direnak ere.

## **28. artikulua. Inbentario Nagusiaren ziurtagiriak**

Inbentario Nagusiari buruz Foru Ondarearen ondasunak eta eskubideak administratu beharreko

funtzionarioek luzapenak egin nahi baldin badituzte legez edo araubidean, luzapen horiek bertako edukiekin egingo dira, baita aurreko artikuluaen bigarren paragrafoan adierazitako dokumentuenak ere.

### **29. artikulua. Dokumentuak gordetzea**

Ondare alorrean eskumenak dituen sailak jabego tituluak, mugatze aktak, tituluak, balioak eta Arabako Foru Aldundiaren, foru organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta foru administrazio partzuergoen ondasun higiezinak eta eskubideak ordezkatzan edo materializatzen diren gainerako dokumentazioa mantendu eta zaindu beharko du, jabari publikoaren barneko elementuen nahitaezko desjabetzeko aktak salbuetsiz.

### **30. artikulua. Inbentario Nagusia eta kontabilitatea**

Inbentario Nagusia ondare kontabilitatearekin koordinatuta egon beharko da, eta banaka zehaztuko dira kontabilitate horretan erregistratutako ibilgetu elementuak.

## **II. TITULUA. JABARI PUBLIKOKO LOTURAK, ATXIKITZEA ETA ALDAKETA**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **31. Artikulua. Eskumena eta prozedura**

1. Foru Ondareko ondasunen eta eskubideen loturak, desfektazioak, atxikipenak, atxikitzeari uzteak eta jabari publikoko aldaketak beren beregi edo inplizituki gertatzen dira titulu honetan xedatzen denarekin bat eginez.

2. Eragin, atxikipen edo aldaketa eskarietan, horiek guztiek izango duten xedea adierazi behar da.



3. Ondasunak eta eskubideak dagoeneko ez direnean beharrezkoak aurreikusi diren xedeetarako, orduan, erakunde eta organoek ondasun eta eskubide horien desafektazioa edo atxikitzeari uztea eskatu eta erabakiko dute.

### **32. artikulua. Inbentarioan jasotzea**

Titulu honetan xedatutakoarekin bat eginez gauzatutako loturak, desafektazioak, atxikipenak, atxikitzeari uzteak eta jabari publikoko aldaketak inbentarioan jasoko dira.

## **II. KAPITULUA LOTURAK ETA DESAFEKTAZIOAK**

### **33. artikulua. Loturaren kontzeptua eta ondorioak**

1. Loturak zehazten du ondasunek eta eskubideek erabilera orokor batekin edo zerbitzu publiko batekin duen uztartzea, eta ondorioz, bere integrazioa jabari publikoan.

2. Lotura erabakiak gutxienez hartzen duen ondasuna edo ondasunak, daukan helburua edo helburuak eta ondasunak administratu eta zaintzeko ardura duen saila, erakunde autonomoa, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoa edo administrazio foru partzuergoa jasoko ditu.

3. Lotura egiaztatzeko eskumena, ondasuna edo eskubidea Foru Ondarearen jabari publikoan gehituz, Arabako Foru Aldundiaren kasuan eta 1.2. artikuluan jasotako erakundeei ondasun higiezinaren lotura gauzatzea, honakoek egin beharko dute:

a) Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak, horien balio unitarioa 600.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

b) Foru Gobernuaren Kontseiluak, ondasunen balio unitarioa aurreko lerroaldean ezarritako zenbatekoa baino handiagoa denean. Kasu horretan, ondare alorrean eskumenak dituen sailak proposatuko dio lotura Foru Gobernu Kontseiluari.

4. Ondasun higigarriak foru autonomo organismoiei, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoei eta foru administrazio partzuergoei lotzean, hori onesteko eskumena izango du eskuratzeko eskumena duen organoak.

### **34. artikulua. Lotura inplizituak**

1. Ondasun edo eskubide bat honako kasu hauetan geratuko da erabilera edo zerbitzu publikoari lotuta:

a) Foru ondarearen ondasunak edo eskubideak benetan eta modu publiko eta nabarian erabilera edo zerbitzu publikorako erabiltzen direnean, urtebetean zehar eta etenik gabe.

b) Nahitaezko desjabetzearen bitartez erabilera edo zerbitzu publikoarentzat ondasunak edo eskubideak jasotzean ondasun edo eskubide horiek lotura izango dute erabilera publikoko edo interes sozialeko adierazpenaren helburu erabakigarriaren ondorioetarako, eta desjabetzaileak hala eskatuta jasotako gainerakoek ez dute loturarik izango eta jabari pribatukoak izango dira.

c) Ondasunak edo eskubideak ordenamendu juridikoan xedatzen den moduetako edozein erabilita eskuratzen direnean eskuraketan jasota geratu behar da ondasuna edo eskubidea erabilera edo zerbitzu publikorako erabiliko dela.

d) Ondasunak edo eskubideak usukapio bidez eskuratzen direnean, eskuratzeko preskripzioa erabaki duten edukitza egintzek ondasuna edo eskubidea erabilera edo zerbitzu publiko batera lotu dutenean, hirugarren pertsonak zuzenbide pribatuko arauen babesean ondasun edo eskubide horien gainean eskuratutako eskubideak gorabehera.

e) Foru Aldundiak jarduteko programa edo plan orokorrak edo obren edo zerbitzuen proiektuak onartzen dituenean, horien ondorioa ondasun eta eskubide jakin batzuk erabilera edo zerbitzu publikoei lotzea bada.

g) Zerbitzu publikoek lan egiteko edo bulego ofizialak hornitzeko beharrezkoak diren ondasun higigarriak eskuratzen direnean.

g) Ondasunak edo eskubideak transferentzia eta administrazio lagapena dela bide eskuratzen

direnean.

2. Eraikuntzan dauden higiezinak sailari lotuta egongo dira, eraikuntza gauzatzen ari den aurrekontu kredituen kargura. Obra bukatutakoan horren berri emango zaio ondare alorrean eskumenak dituen sailari, inbentarioan eta erregistroetan jasota geratu dadin.

3. Sail bati edo Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako erakundeei lotuta egongo dira berehala zerbitzu publikora zuzenduko ez diren ondasunak eta eskubideak, epe bat igarotakoan edo baldintza batzuk betetzean horiek erabiliko direla aurreikusita dagoenean.

### **35. artikulua. Loturak inbentarioan jasotzea**

1. Berariazko lotura ekimenetan gutxienez lotu den ondasuna edo eskubidea eta jabari publikoaren barne geratzeko inguruabarra adieraziko dira, eta hori guztia Inbentario Nagusian jasota geratuko da.

2. Modu inplizituan egindako loturak era berean inbentario nagusian jasoko dira horien berri izaten denean. Hori egitean gutxienez lotutako ondasuna edo eskubidea eta lotura inplizitua sortu zuten egitateak edo jarduketak adieraziko dira.

### **36. artikulua. Baterako loturak**

1. Jabari publikoko ondasunak eta eskubideak foru erabilera edo zerbitzu publiko bat baino gehiagorako lotu daitezke, betiere bakoitzaren xedeak bateraezinak ez badira.

2. Lotura konkurrentea erabakitzen duen ebazpenak zehaztu egingo ditu erabilera edo zerbitzu bakoitzaren ardura duen organoari dagozkion ahalmenak eta betebeharrak.

### **37. artikulua. Desafektazioaren kontzeptua eta ondorioak**

1. Jabari publikoko ondasun eta eskubideek izaera hori galduko dute, eta ondarezkoa lortu, ondasun eta eskubide horiek desafektatzen direnean, erabilera edo zerbitzu publiko baterako dagoeneko erabiltzen ez direlako.

2. Desafektatutako ondasunak eta eskubideak jabari pribatuan eraginkortasunez gehitzeko berariaz eman beharko da desafektazioari buruzko adierazpena, eta izendapen aldaketa inbentarioan jaso beharko da.

Desafektatutako ondasunak jabari pribatuan ez dira sartuko ondasuna ondarearen alorrean eskumenak dituen sailak modu formalean jaso arte, eta jasotze hori gertatu arte beraz, jabari publikokoa izango da.

### **38. artikulua. Desafektazioa gauzatzeko modua eta prozedura**

1. Artikulu honetako laugarren paragrafoan ondasun higigarrientzat aurreikusten diren inguruabarretan izan ezik, desafektazioa beren beregi egin behar da beti, eta lagapen eta besterentze erabakiei erants dakieke.

2. Desafektazioa egiaztatzeko eskumena, eta ondorioz hala dagokionean Foru Ondarearen jabari pribatuan ondasuna edo eskubidea gehitzea, honakoek gauzatuko dute:

a) Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak, horien balio unitarioa 600.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

b) Foru Gobernuaren Kontseiluak, ondasunen balio unitarioa aurreko lerroaldean ezarritako zenbatekoa baino handiagoa denean. Kasu horretan, ondare alorrean eskumenak dituen sailak proposatuko dio desafektazioa Foru Gobernu Kontseiluari.

3. Arau hauetan ezarritakoa beteko da prozeduran:

a) Jabari publikoko ondasuna edo eskubidea desafektatzea onesteko erabakian adierazi egin behar da zein arrazoi dauden justifikatzeko ondasun edo eskubide hori ez dela beharrezkoa desafektatzea erabaki duten xedek betetzeko.

b) Inbentario Nagusian ondasunaren edo eskubidearen kalifikazio juridikoaren aldaketa jaso

beharko da.

4. Ondasun higigarrien kasuan, besterentzeko eta dohaineko lagapenerako erabakiek ondasun horiek desafektatzea daramate modu inplizituan.

### **III. KAPITULUA. ATXIKITZEA ETA ATXIKITZEARI UZTEA**

#### **39. Artikulua. Atxikitzea**

1. Atxikitzea ondasuna edo eskubidea modu organikoan sail bati edo Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako erakunderen bati lotzea da. Foru Ondarea osatzen duten ondasun higiezinak atxikitzea Foru Gobernuaren Kontseiluak egingo du, baita sailen arteko, foru organismo autonomoen arteko, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen arteko eta foru administrazio partzuergoen arteko xede aldaketak egitea ere.

Hala ere, ondasun higiezinak atxikitzeko eskumena ondare alorrean eskumenak dituen sailaren diputatuari dagokio.

2. Arabako Foru Aldundiko sailek ondare alorrean eskumenak dituen sailetik bere eskumeneko zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoak diren foru ondareko ondasunen eta eskubideen espediente izapidetzea jaso hala izango dute, eta ondoren proposamena Foru Gobernu Kontseiluari bidaliko diete, hala badagokio.

3. Foru organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta foru administrazio partzuergoek administratiboki menpekoak diren sailaren bitartez ondare alorrean eskumenak dituen sailari eskatu ahal izango diote Foru Ondareko ondasun eta eskubideen atxikitze espedientea izapidetzeko, beraien helburu espezifikoetarako.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak foru organismo autonomoei, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoei eta foru administrazio partzuergoei atxikitako ondasunek eta eskubideek jatorrizko izendapen juridikoa mantenduko dute, eta bakarrik helburu horiek betetzeko erabili ahal izango dira.

4. Atxikitze egintzaren aurretik ondasuna jabari publikoari lotuko zaio, horrela badagokio. Bestalde, foru organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta foru administrazio partzuergoen kasuan, ondasuna edo eskubidea zein helburutara dagoen zuzenduta azalduko da zehazki.

5. Atxikipenak Foru Arau honetan beste organo batzuentzat gorde ez diren ondasun eta eskubideen gaineko kudeaketa, administrazio eta defentsa eskumenak emango dizkio jardunbidea zuzenduta zegoen sailari edo erakundeari.

#### **40. artikulua. Atxikitzeari uztea**

1. Sail bati atxikitako ondasun eta eskubideak jadanik erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako beharrezkoak ez direnean, aipatutako sailak berauen berehalako atxikitzeari uztea proposatu beharko dio ondare alorrean eskumenak dituen sailari, dagozkion ondasunen identifikazioa ahalbidetuko duten inguruabarrak eta atxikitzeari uztea eragin duten arrazoiak jasota utziz.

Prozedura ondare alorrean eskumenak dituen sailak hala eskatuta ere hasi ahal izango da.

2. Hori bera foru organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta foru administrazio partzuergoek ere egin beharko dute, nork bere sail administratiboaren bitartez, baldin eta haiei atxikitako ondasun eta eskubideak atxikitzean aurreikusten zen helbururako jada erabiltzen ez badira.

3. Ondare alorrean eskumenak dituen sailak atxikitzeari uzteko beharra egiaztatuko duen espedientea bideratuko du.

4. Atxikitzeari uzteko egiaztatze eskumena, eta ondorioz hala dagokionean Foru Ondarearen jabari pribatuan ondasuna edo eskubidea gehitzea, honakoek gauzatuko dute:

a) Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak, ondasunen edo eskubideen balio unitarioa 600.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

b) Foru Gobernuaren Kontseiluak, ondasunen balio unitarioa aurreko lerroaldean ezarritako

zenbatekoa baino handiagoa denean. Kasu horretan, ondare alorrean eskumenak dituen sailak proposatuko dio atxikitzeari uzteko Foru Gobernu Kontseiluari.

## **IV. KAPITULUA. JABARI PUBLIKOA ALDATZEA**

### **41. artikulua. Kontzeptua**

1. Jabari publikoaren aldaketa gertatzen da jabari publikoko ondasun baten erabilera edo zerbitzu publikoa aldatzen denean, eta horrek justifikatu egiten du beraz jabari publikoko araubidearen barne jarraitzea.

2. Jabari publikoaren aldaketa barnekoa eta objektiboa izango da, titulartasuna aldatzen ez den baina xedea aldatzen den inguruabarretan. Jabari publikoaren kanpoko aldaketa edo aldaketa subjektiboa gertatzean ondasunaren titulartasuna aldatzen da.

### **42. artikulua. Jabari publikoaren barneko aldaketa edo aldaketa objektiboa**

1. Jabari publikoko barneko aldaketa edo aldaketa objektiboa gertatzean jabari publikoko ondasunaren xedea aldatzen da, honako inguruabarretan:

- a) Xede duten erabilera edo zerbitzu publikoa aldatzea eta izaera berdineko beste bat jartzea.
- b) Bateragarriak diren loturak gertatzea.

2. Sailak, foru organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoak eta foru administrazio partzuergoak, beste batzuei atxikitako ondasunak behar dituztenak, ondare alorrean eskumenak dituen sailera joango dira hark dagokion espedienteak hasteko. Hala, entzunaldia emango zaie interesa duten sail edo erakunde guztiei, eta ondasunaren edo eskubidearen xedea erabakiko da.

3. Lotura aldaketa horiek Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluak onetsiko ditu ondare alorrean eskumenak dituen sailak hala proposatuta.

4. Organo horren ebazpenak ondasunen eta eskubideen xedea adieraziko du, eta lotura aldaketak atxikipen aldaketa sortzen baldin badu, atxikiak geratu diren saila adierazi beharko da, baita sail

horrek Foru Arau honen 39.5. artikuluan adierazitako eskumenak jasotzeko epea ere.

#### **43. artikulua. Jabari publikoaren kanpoko aldaketa edo aldaketa subjektiboa**

1. Jabari publikoaren kanpoko aldaketa edo aldaketa subjektiboa ondasunaren titularra den administrazio publikoa aldatzen denean gertatzen da, bere xede publikoa aldatu gabe.

2. Jabari publikoaren kanpoko aldaketa edo aldaketa subjektiboa formalizatzeko esku hartzen duten administrazio publikoen arteko administrazio hitzarmena egin beharko da eta jabegoaren erregistroan erregistratu beharra egongo da.

3. Horri dagokionez, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek jabari publikoko ondasunak eta eskubideak Arabako Foru Aldundiaren erabilera edo zerbitzu publiko bati lotzeko aukera izango dute (edo bere foru organismo autonomoi, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoei eta foru administrazio partzuergoei) eta horien titulartasuna emango zaie helburuak betetzeko beharrezkoa denean. Era berean, Arabako Foru Aldundiak bere jabari publikoaren ondasunen eta eskubideen titulartasuna eman ahal izango du lehenengoan alde, beharrezkoak direnean helburuak betetzeko hain zuzen ere. Kasu horietan, emandako ondasunek edo eskubideek jabari publikoarekiko duten lotura mantenduko dute.

4. Administrazio jasotzaileak ondasunaren titulartasuna mantenduko du aldaketaren arrazoia izan den erabilerari edo zerbitzu publikoari lotuta jarraitzen duen bitartean, eta ondorioz, jabari publikoa izaten jarraitzen duen bitartean. Ondasuna edo eskubidea erabilera edo zerbitzu publikoari zuzentzen ez baldin bada edo ondoren horrelakorik egiten baldin bada, eman duen administrazioari itzuliko zaio, eta hala, bere ondarearen barne geratuko da, jabetza eta akzesio guztiekin.

5. Beste administrazio batzuen alde eta beste administrazio batzuk Arabako Foru Aldundiaren alde egindako jabari publikoaren kanpoko aldaketak onestea Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, interesa duen sailak eta/edo ondare alorrean eskumenak dituenak hala eskatuta, albo batera utzi gabe Batzar Nagusiek berrestea aplikatu beharreko araubideak hala zehazten duenean.



### **III. TITULUA. ONDARE KUDEAKETA**

#### **I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK**

##### **44. artikulua. Ondare negozioen araubide juridikoa**

1. Ondasun eta eskubideei buruzko gainerako kontratuak, hitzarmenak eta negozio juridikoak prestakuntza eta adjudikazioari dagokionez Foru Arau honek eta bere garapen xedapenek arautuko ditu, eta arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztia sektore publikoko kontratuen legeriak arautuko du. Bere ondorioak eta suntsiarazpena Foru Arau honek eta zuzenbide pribatuko arauak arautuko dute.

2. Ondasun eta eskubideei buruzko gainerako kontratuak, hitzarmenak eta negozioak hitzarmen askatasuneko printzipioari lotuta daude. Administrazio publikoak, interes publikoa lortzeko, egokitzat jotzen dituen klausulak eta baldintzak hitzartu ahal izango ditu, betiere antolamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez baldin badira.

##### **45. artikulua. Jarduteko gaitasuna**

1. Arabako Foru Aldundiak gaitasun juridiko osoa du, eta jarduteko ahalmena, antolamendu juridikoak ezartzen dituen baliabideekin ondasun eta eskubideak eskuratu eta besterentzeko, eta bere Foru Ondarearen defentsarako bidezko diren ekintzak eta errekursoak aurrera eramateko.

2. Ondasun higiezinaren kasuan, 1.2.) artikuluan adierazitako erakundeek Arabako Foru Aldundiak ondasunak eta eskubideak jasotzeko, besterentzeko eta izateko duen gaitasun berdina izango dute.

3. Eskuratzen diren ondasunak eta eskubideak Foru Ondarearen jabari publikoan edo pribatuan integratuko dira, foru arau honetan xedatzen denarekin bat.

## **46. artikulua. Ondare negozioak egiteko prozedura**

1. Hauek izango dira orokorrean ondare negozioetako adjudikazio prozedurak:

- a) Enkantea edo lizitazio publikoa, lehia publikoa eta orokorra duena, eta irizpide bakarra prezioaren adjudikazioa izango duena.
- b) Lehiaketa edo lizitazio publikoa, lehia publikoa eta orokorra duena, eta adjudikazio irizpide anitzak erabiliko dituen.
- c) Zuzeneko adjudikazioa, Foru Arau honetan aurreikusitako inguruabarretan.

2. Adjudikazio modua adjudikazio irizpide bakarra duen enkantea edo lizitazio publikoa denean, irizpidea halaberrez prezioa izan beharko da. Prozedura hori gehienez ere hiru alditan errepikatu ahal izango da lehenengo lizitazioa hutsik edo ezin eginda geratu baldin bada, edo bigarren lizitazioan kontratazio organoak lizitazio berriaren deialdia egiten baldin badu.

Lehenengo lizitazioa egin zenetik bi urte baino gehiago igaro badira eta ondasunak edo eskubideak adjudikatu ez badira, deitzen den hurrengo lizitazioa lehenengotzat joko da; hori dela eta, ondasunen beste tasazio bat egin beharko da.

3. Adjudikazio irizpide bat baino gehiago aplikatuz gero, nola haztatuko diren argitu behar da.

4. Adjudikazio modua zuzeneko denean, Foru Arau honetan jasotako kasuetan dagoen eta arrazoituta egiten den interes publikora gehien egokitzen den proposamena aukeratuko da.

## **47. artikulua. Adjudikazioetako prozedura arauak**

1. Ondasunen eta eskubideen adjudikazioa Foru Arau honen 46. artikuluan aurreikusitako prozeduren eta adjudikazio moduen arabera egin ahal izango da.

2. Adjudikazio modua 46. artikuluan 1. ataleko a) edo b) hizkietan ezarritakoa denean, doan argitaratuko da ALHAOn, gutxienez hamabost egun baino gutxiagokoa ez den aurrerapenarekin.

3. Behin adjudikazio prozedura iragarri ondoren, organo adjudikatzaileak bertan behera utzi dezake,

interes publikorako bidezkoa ez dela arrazoiz justifikatuta, eta espedientearen instrukzioak, lizitazio publikoa egin izanak edo proposamenen balorazioak ez diete inolako eskubiderik emango espedientearen parte hartu dutenei.

4. Kontratazeko gaitasuna duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute titulu honetan aipatutako jarduera eta kontratuen adjudikazio prozeduretan eta adjudikaziodunak eta kontratistak izan ahalko dira, kontratu mota guztietarako Kode Zibilean jasotako arauen arabera eta, bereziki, dagokion kontratu motarako arauen arabera.

5. Lizitazio publikoko prozeduretan parte hartu ahal izateko, kontratazio organoak oinarrien pleguan edo agiri baliokidean eskatu ahal izango du bermea eratzeko (gehienez ere lizitazio oinarriaren zenbatekoaren % 20ra artekoa), sektore publikoko legerian ezarritako moduetan.

6. Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua eskaintza onuragarriena egin duenari adjudikatzea, adjudikazio irizpideak aplikatuta eta balio ekonomikoa nahitaez aintzat hartu gabe edo kontratua adjudikatu gabe uztea, pleguetan ezarritako irizpideen arabera onar daitekeen eskaintzarik ez badago.

7. Onar daitekeen proposamenik aurkezten ez bada, adjudikazioa hutsik geratuko da, eta, adjudikaziodunaren ez-betetzeagatik xedapen egintza formalizatu ezin bada, huts egindakotzat joko da.

Ezarritako irizpideen arabera eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailari adjudikazioa egingo ez zaionean lizitatzailak adjudikaziorako beharrezko baldintzak betetzen ez dituelako, deialdi berria egin aurretik administrazioak haren ondorengo lizitatzailari edo lizitatzailari adjudikazio berria egin ahal izango die, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraiki.

8. Dagokion espedientea izapidetzeari dagokionez, honako agiriak atxiki beharko zaizkio.

- a) Memoria bat, eta bertan justifikatuko da eskuraketaren edo besterentzearen beharra edo egokitasuna, ondasuna edo eskubidea zein helburutarako erabili edo besterendu nahi den.
- b) Kostu bidezko eskuratzeak egonez gero, kreditua dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Hala badagokio, kostu bidez jasotzeko edo besterentzeko ondasunaren edo eskubidearen tasazioa, Foru Arau honen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez.

#### **48. artikulua. Adjudikazio formak eta prozedurak erabiltzea**

1. Orokorrean adjudikazio bakarra prezioa izango duen lizitazio publikoa erabiliko da kostu bidezko eskuratzetan eta besterentze prozeduretan. Salbuespena izango dira, Foru Gobernu Kontseiluak behar bezala egiaztatutako interes publikoko arrazoiak direla eta ondarearen alorrean eskumenak dituen sailak hala proposatuta adjudikazio irizpide batzuekin eta lehiaketa edo lizitazio publiko bidez egindako eskuratzek edo besterentzek edo zuzeneko adjudikazioa.

2. Honako kasuetan adjudikazio irizpide anitzak dituen lehiaketa edo lizitazio publikoa erabili ahal izango da:

- a) Xedapen egintzan edo lagapen egintzan indarreko politika publikoetatik datozen arauak kontuan hartu behar direnean.
- b) Organo adjudikatzailerak adjudikaziorako prezioa ez den beste alderdi edo prestazio batzuk kontuan hartu behar direla uste duenean.
- c) Ondare ondasunak eta eskubideak ustiatzeko adjudikazioak egitean, artikuluko honen 3. atalean aurreikusitako inguruabarretan zuzeneko adjudikazio egin behar denean salbuetsiz.

3. Zuzeneko adjudikazioa eskumenak dituen organoak erabaki ahal izango du eskuratzeko, xedapen edo lagapen ekimena erabakitzeko, Foru Arau honetan negozio juridiko bakoitzarentzat araututako inguruabarretan.

## **II. KAPITULUA ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK ESKURATZEA**

### **1. ATALA. ARAU OROKORRAK**

#### **49. artikulua. Ondasunak eta eskubideak eskuratzeko moduak**

Foru Arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren erakundeek antolamendu juridikoan ezartzen diren moduetako edozein erabil dezakete ondasunak eta eskubideak eskuratzeko eta, bereziki, hauek:

- a) Legeak hala adierazita.
- b) Adjudikazio judizial edo administratiboz.
- c) Kostu bidez.
- d) Desjabetze ahalmena egikaritzuz.
- e) Irabazi asmo batekin, herentziaz, legamenduz, dohaintzaz edo erabilera lagapenez.
- f) Okupazioaz, ondasun higiezin kasuan.
- g) Usukapio edo akzesioz.
- h) Beste administrazio publiko batetik egindako transferentziaz.
- i) Jabari publikoa aldatzearekin.
- j) Administrazioak berak eraikia.
- k) Hirigintzako jarduerak direla bide.
- l) Bestelako legezko moduak erabiliz, tipikoak edo atipikoak, antolamendu juridiko edo pribatuarekin bat eginez.

## **2. ATALA. KOSTU BIDEZKO ESKURATZEAK**

### **50. artikulua. Kostu bidezko eskuratzeak**

1. Kostu bidezko eskuratzeak Foru Arau honen xedapenen bitartez arautuko dira, ondasunen eta eskubideen izaera kontuan hartuta.
2. Nahitaezko desjabetzearen bidezko ondasun eta eskubideen eskurapena berariazko araudian aurreikusitakoari egokituko zaio.
3. Egin beharreko ordainketa aurrekontu ekitaldi batean edo batzuetan zehar banatu ahal izango da.

### **51. artikulua. Nahitaezko desjabetze bidezko eskuratzeak**

1. Eskuratze modu hori erabiltzen denean, ondasuna erabilera orokorrari edo zerbitzu publikoari lotzea desjabetze barneko prozedura izango da, desjabetzaileak hala eskatuta eskuratzen direnean salbu. Orduan jabari publikoari lotuta daudela edo jabari publikoaren barne daudela ulertuko da.
2. Nahitaezko desjabetzeen espedienteak Foru Arau batean edo Foru Dekretu batean jasotako

horretarako funtzioak dituzten sailek gauzatuko dute.

3. Desjabetze espedientea amaituta, eta eskuraketa dagokion erregistroan behar bezala inskribatu eta gero, eskuraketa formalizatu eta titulartasuna jasotzen deneko agiriak, bai eta, beharrezkoa bada, erregistroko inskripzioa ere ondare arloan eskumenduna den sailari helaraziko zaizkio, Inbentario Nagusian jasota gera daitezten.

## **52. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratzea**

1. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan adierazitako foru erakundeek horien helburuak betetzeko zehazten dituzten ondasun higiezinaren gaineko jabetzaren kostu bidezko titulua eta gainerako eskubide errealak eskuratzea Foru Gobernu Kontseiluak erabakiko du, ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatuak hala proposatu ondoren.

2. Orokorrean, eskuratzea lizitazio publikoaren bitartez egingo da adjudikazio irizpide bakarrarekin edo batzuekin, honako inguruabarren bat gertatutakoan zuzeneko eskuratzea gauzatzea erabakitzen denean salbu:

- a) Eskuratzea premia handikoa dela agerian egotea.
- b) Bete beharreko beharrak edo eskuratu nahi den ondasuna bereziak izatea.
- c) Higiezinaren merkaturaren eskaintza edo baldintza gutxi egotea.
- d) Ondasuna bereziki egokia izatea.
- e) Saltzailea beste administrazio publiko bat denean edo, oro har, sektore publikoan dagoen zuzenbide publiko nahiz pribatuko pertsona juridiko bat denean.
- f) Eskuratzeko lizitazioa hutsik geratu denean edo huts egindako egintza izan denean.
- g) Jabekidetasuna egonez gero, jabekide batengandik ondasun baten kuota jasotzen denean.
- h) Eskuraketa lehentasunezko eskuratzeko eskubide bat erabiliz egiten denean.
- i) Hirigintzako jarduketak direla bide.
- j) Beste higiezin batzuekiko mugakidetasuna dagoenean.
- k) Truke bidez eskuratzen denean.

3. Ondare alorrean eskumenak dituen sailak eskuratzea onartzera eta dagozkion kontratuak notario aurrean formalizatzerara eta erregistroan inskribatzerara zuzendutako izapide guztiak egiteko eskumena du. Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren titularrak Arabako Foru Aldundia ordezkatzeko du

eskritura publikoak ematen direnean.

4. Aurreko atalean xedatutakotik salbuetsita egongo dira Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legea betez gauzatzen diren eskuratzeak. Kasu horretan, kudeaketa sail jarduleen esku egongo da, 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **53. artikulua. Ondasun higigarriak eskuratzea**

1. Ondasun higigarriak kostu bidez erostea dagokion gastua baimendu eta erabiltzeko eskumena duten Arabako Foru Aldundiko organoek, dagozkien eskumenen esparruan, eta foru erakunde autonomiadunen araubidean ezarritako organoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta foru administrazio partzuergoek erabakiko dute.

2. Ondasun higigarriak kostu bidez erosteak, horrela badagokio, dagokien zerbitzu publikoari atxikitzea ekarriko du berekin, kontrakorik adierazi ezean.

3. Ondasun higigarriak erosteko kontratuen adjudikazio moduak eta prozedurak administrazio publikoetarako aipatutako kontratuen lege arautzaileetan aurreikusitakoak izango dira.

### **54. artikulua. Sozietateetako akzio eta partaidetzak eskuratzea**

1. Arabako Foru Aldundiak sozietateen akzio eta partaidetzak eskuratzeko baimena eman beharko du Foru Gobernuaren Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta gaiaren inguruan eskumenak dituen sailak batera proposatu ondoren. Hala, balorazio ekonomikoa izan dezaketen ondare ondasunak eta eskubideak ematea adostu ahal izango dute.

2. Edonola ere, merkataritza sozietateen kapitalean akzioen eta partaidetzen balioak eta ordezkari-tituluak edo sozietate horiek emandako betebeharrenak, foru ondarearen jabari pribatukoak izango dira.

### **55. artikulua. Gorpuzgabeko jabetzak eskuratzea**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, interesa duen sailaren diputatuak hala eskatuta, gorpuzgabeko jabetzak eskuratzea ebatzi beharko du horien balio unitarioa 80.000 euro baino gehiagokoa denean.

2. Jabetza gorpuzgabea jasoko duen sailaren titularrak onetsi beharko du jabetza gorpuzgabeak eskuratzea horien balioa aurreko paragrafoan adierazitakoa edo gutxiagokoa baldin bada.

3. Foru organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek edo foru administrazio partzuergoek gorpuzgabeko jabetzak eskuratzea horien araubidea ezartzen duten organoek ebatziko dute.

4. Jabetza gorpuzgabearen gaineko eskubideen eskuraketa administrazio kontratuak direla bide egiten bada, herri administrazioen kontratuen legedia aplikatuko da. Eskubideon lankidetzaren hitzarmenen bidezko eskuraketa arau berezietan eta hitzarmenetan bertan ezarritakoari lotuko zaio.

## **56. artikulua. Negozio juridiko konplexuak eta aukerak**

1. Ondasunen edo eskubideen eskuraketa edo errentamendua helburu duten negozio juridikoetan aldeek aurreikusi dezakete negozioaren helburu diren ondasun edo eskubideei edo erakunde kontratatzailearen ondarean sartuta dauden beste batzuei lotutako prestazio osagarriak egitea, betiere betebeharrak horiek betetzea behar bezala bermatuta badago. Negozio konplexuok espediente bakarrean izapidetuko dira, eta negozioaren helburu nagusi den ondarezko negozio juridikoari dagozkion arauak jarraitu beharko dituzte.

2. Orobat, administrazioaren alde ondasunak edo eskubideak eskuratzeko eskubidea eratzea helburu duten negozio juridikoak ere itundu daitezke. Horrelako kontratuei kontratuotako ondasunak edo eskubideak eskuratzeko ezarrita dauden lehia eta prozedura arauak aplikatuko zaizkie; dena den, gastu espedientea soilik izapidetuko da aukera emateko finkatu zen prima edo prezioari dagokion zenbatekorako.

## **57. artikulua. Ondasunen eskuraketak foru sektore publikoko organismo edo erakunde publikoen edo pribatuen itzulketen ondorioz**



1. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan jasotzen diren erakundeek izaera publikoko organismo edo erakundeen funts propioen murrizketaren bidez eskuratu ahal izango dituzte ondasun higigarriak eta eskubideak, edo sozietateen kapital murrizketa bidez, edo fundazioei eta gainerako erakundeek egindako ekarpen itzulketen bidez.

2. Ondasun eta eskubide horiek egin beharreko eragiketa guztiak egin ondoren Foru Ondarean sartzeko, emate akta sinatu behar da. Akta sinatu behar dute, batetik, ondare arloan eskumenduna den sailaren ordezkari batek, hartzailea Arabako Foru Aldundia bada, edo, beste kasuren bat bada, erakunde hartzailearen legezko ordezkariak, eta, bestetik, ondasunaren edo eskubidearen sorburu den kapitalaren edo funtsen titularra den erakunde, sozietate, fundazio edo erakundearen legezko ordezkariak.

3. Organismo edo erakunde publikoak eta Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen izaera juridiko pribatuko gainerako sozietateak edo erakundeak deuseztatzen direnean, horien ondarea lotura duten edo menpeko izan diren erakundearen ondareari gehituko zaio, eta hala, dagozkion erregistro izen emateak egin beharko dira hipoteka eta merkataritza legeriarekin bat eginez.

### **3. ATALA. DOAKO ESKURATZEAK**

#### **58. artikulua. Adjudikazio judizialak edo administratiboak**

1. Ondare alorrean eskumenak dituen sailera igorriko da Arabako Foru Aldundiari edozein motatako ondasun edo eskubideak adjudikatzen dizkion agintari judizial edo administratiboaren ebazpen oro.

2. Ondare alorrean eskumenak dituen sailak prozedura judizial edo administratiboaren ondorioz Arabako Foru Aldundiari adjudikatutako ondasun eta eskubideak identifikatu, hauei buruzko balioztapena eskatu eta Inbentario Nagusian sartzeari ekingo dio.

#### **59. artikulua. Oinordekotzaz, legamenduz edo dohaintzaz eskuratzea**

1. Oinordekotzaz, legamenduz edo dohaintzaz ondasunak eta eskubideak eskuratzeko Foru Gobernu Kontseiluak onetsi egin beharko du ondasun higigarriek edo diruzko ondasunek 80.000 euro baino gehiagoko balioa dutenean, eta edonola ere, ondasun higigarriak edo horien gaineko eskubide

errealak direnean edo oinordekotzari, legamenduari edo dohaintzari helburu zehatza ezartzen zaionean. Proposamena ondare alorrean eskumenak dituen sailak egingo du edo sail horrek batera dagokion sailarekin, ondasunentzat edo diruarentzat xede zehatza ezarriz gero.

Gainerako kasuetan eskumenduna ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatua izango da.

2. Aurreko atalak aipatzen duen onespena lortzeko nahitaezko baldintza izango da, horrela dagokionean, ondasun eta eskubideen gaineko zergen balio globalak berauek berez duten balioa, aldez aurretiko adituen tasazioaren bidez zehaztua, ez gainditzea, espedientean behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiengatik aipatutako erosketa Arabako Foru Aldundiaren ondare interesetarako gomendagarria suertatzen ez bada behintzat.

3. Nolanahi ere, oinordekotza bidezko ondasun eta eskubideen eskurapena inbentarioaren alde egin dela ulertuko da.

#### **60. artikulua. Usukapioz, akzesioz eta okupazioz eskuratzea.**

Foru Ondarearen alde usukapioz, akzesioz eta okupazioz egiten diren eskurapenak Kode Zibilaren eta lege berezien arabera arautuko dira.

### **4. ATALA. ERABILERA LAGAPENAK ONESTEA**

#### **61. artikulua. Erabilera lagapenak onestea**

1. Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako erakundeen alde egindako ondasunen erabilera lagapenak onestea bost urte baino gehiagoko eperako Foru Gobernu Kontseiluak egingo du, ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta interesa duen sailak batera egindako proposamenaren ondoren.

Erabilera lagapenaren hasierako epea, luzapenak salbuetsiz, bost urtekoa edo gutxiagokoa denean, hori onartzea ondare sailean eskumenak dituen sailak gauzatu beharko du.

2. Edonola ere, lagatako ondasunei dagokienez, Foru Gobernu Kontseiluak erabakia hartu beharko du interesa duen sailaren foru diputatuak eta ondare alorrean eskumenak dituen sailaren diputatuak hala proposatuta, honako hauetarako:

- a) Higiezin inbertsioak, hobekuntza lanak barne, baimentzeko, berauen zenbatekoak guztira tasazioaren arabera lagata izan zenean ondasunak zuen balioaren ehuneko hogeita bost gainditzen duenean.
- b) Lagapen aldiaren bigarren zatian eta, edozein kasutan, azken bi urteetan, kontserbaziorako ez diren gastuak egiteko.

3. Foru organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta administrazio foru partzuergoen alde egiten diren ondasunak erabiltzeko lagapenen onarpena berauen zuzendaritza organoak gauzatu du, berariazko legeek besterik xedatzen ez badute behintzat. Lagapenak berekin berariazko erabilera emateko baldintza edo konpromisoa dakarrenean Foru Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da.

### **III. KAPITULUA. ONDASUNAK ALOKATZEA**

#### **62. artikulua. Alokatzea**

1. Arabako Foru Aldundiaren ondasun higiezinak alokatzea eta bere alde eta 1.2. artikuluan adierazitako gainerako erakundeen alde ondasun higiezinak alokatzea honakoek erabakiko dute:

- a) Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuak hala proposatuta, hasierako alokatzeak, luzapenak salbuetsiz, bost urteko epea gainditzen duenean edo urteko prezioa 80.000 euro baino gehiagokoa denean.
- b) Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak, aurreko atalean ezarritako epea edo zenbatekoak gainditzen ez direnean.

2. Alokatzek dagokion gastua baimendu eta erabiltzeko eskumena duten Arabako Foru Aldundiko organoek, dagozkien eskumenen esparruan, eta foru erakunde autonomiadunen araubidean ezarritako organoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta foru administrazio partzuergoek erabakiko dituzte.

3. Alokatzea lizitazio publikoaren bidez erabakiko da, ondasun higiezin erostetarako ezarritako

prozedura ezarri ahal izango delarik artikuluko honetan ezarritako aldaketekin eta alokatze kontratuaren aldaketekin. Zuzeneko kontratazioa erabili ahal izango da modu justifikatuan, honako kasu hauetan:

- a) Kontratazioa premiaz egin behar baldin bada.
- b) Bete beharreko beharrak edo alokatu nahi den ondasuna bereziak izatea.
- c) Higiezinaren merkaturaren eskaintza edo baldintza gutxi egotea.
- d) Alokaturako den ondasuna bereziki egokia denean.
- e) Sustatutako lizitazioa hutsik geratu denean edo huts egindako egintza izan denean.
- f) Jabetza barneko higiezinarekiko edo alokatutako beste higiezin batekiko mugakidetasuna edo hurbiltasuna dagoenean.

4. Erosketa aukera eskaintzen duten errentamenduen, finantza errentamenduen eta gainontzeko errentamendu eta erosketa kontratu mistoen kasuan dagokion kontratuan zehazten diren ondasunen erosketari buruzko xedapenak ezarriko dira.

## **IV. KAPITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK BESTERENTZEA**

### **1. ATALA. ARAU OROKORRAK**

#### **63. artikulua. Besterendu daitezkeen ondasunak eta eskubideak**

1. Foru Ondarearen barnekoak diren baina Arabako Foru Aldundiaren edo bere organismo publikoaren eskumenak eta funtzioak egikaritzeko beharrezkoak ez diren ondasunak eta eskubideak besterendu egin ahal izango dira kapitulu honetan ezarritako arauekin bat eginez.

2. Foru Ondarearen ondasun higiezinak eta horien eskubide errealak besterentzea aurretiazko besterengarritasun deklarazioaren menpe egongo da. Hala ere, eskumenak dituen organoak ondasun higiezin bat besterentzeko ebazpena onesten baldin badu besterengarritasun deklarazioa barne egongo da.

3. Foru Ondarearen ondasunak besterentzea erabaki ahal izango da horien aldi bateko erabilera gordez behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiak direla eta hori egitea komenigarria denean interes publikoarentzat. Aldi baterako erabilera hori alokairu kontratuak egin bitartez edo

besterendutako ondasunak erabiltzea ahalbidetzen duten bestelakoak egin bitartez gauzatu ahal izango da. Horiek besterentze negozioarekin bat gertatu beharko dira, eta bere eskumen eta prozedura berdinak errespetatu beharko dituzte.

#### **64. artikulua. Ondasun higigarri galkorrak, zerbitzuarentzat gaituak ez direnak edo erabili ezin diren efektuak**

1. Foru Arau honetako kapitulu honetako 2. atalean ezarritakoaren arabera saldu ahal izango dira ondasun higigarri galkorrak edo zerbitzurako gai ez direnak edo erabili ezin diren efektuak, edo, hala denean, beste eskuraketa baten prezioaren zati balira bezala eman ahal izango dira.

2. Horiek saldu ezin izan direnean edo arrazoiz uste baldin bada ez direla saldu behar, doan eta zuzenean besterendu ahal izango zaizkie irabazi asmorik gabeko fundazioei, erakundeei eta elkarteei, baita bestelako erakunde publikoei ere, Foru Arau honen kapitulu honetako 3. atalean ezarritakoarekin bat eginez.

3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa aplikatzekoa ez denean, ondasuna lotuta duen organoak kudeaketa egokia emango die hondakin izaera duten ondasun higigarri galkorrei edo zerbitzurako gai ez direnei, baimendutako kudeatzaile bati emanez. Birziklatzea edo beste balioespen mota batzuk lehenetsiko dira eta, halakorik posible ez denean, ondasunak ezabatuko dira; hala ere, pertsonen osasuna eta ingurumenaren babesa beti zaindu beharko dira.

4. Ondasunak besterendu, birziklatu edo ezabatu aurretik, beharrezkoa izango da ondasun horiek eskuratzeko edo kudeatzeko eskumena duen organoak zerbitzurako gai ez direla adieraztea. Ondokoak izango dira adierazpen horren oinarriak: ondasunak zaharkituta egotea, narriatuta egotea edo ezinezko edo ekonomiaren aurkako ustiapena edukitzea. Edonola ere gertakari horien berri emango zaio ondarearen alorrean eskumenak dituen sailari.

## **2. ATALA. KOSTU BIDEZKO BESTERENTZEA**

### **1. AZPIATALA. ARAU OROKORRAK**

#### **65. artikulua. Kostu bidezko xedapen egintzen araubide juridikoa**

Edozein negozio juridiko dela bide egin ahal izango dira besterentzeak eta kostu bidezko beste xedapen egintzak.

#### **66. artikulua. Ondasunak edo eskubideak erakunde publikoei, merkataritza sozietateei eta gainerako erakunde pribatuei ematea**

1. Foru Arau honetako 1.2. artikuluan adierazitako erakundeen artean ondasun eta eskubideen titularra denak erabakiko du herri erakunde, merkataritza sozietate eta izaera pribatuko gainerako erakundeentzako ondasun edo eskubideen ekarpena. Erakunde titularra Arabako Foru Aldundia denean, Foru Gobernu Kontseiluak erabakiko du ekarpena, ondare arloan eskumenduna den sailak proposatuta, eta tasazioa eginda; hala ere, Foru Arau honetako V. tituluaren zein gainerako xedapenetan eta merkataritza legediari buruzkoetan ezarritakoa bete beharko da.

2. Erakunde titularra Arabako Foru Aldundia ez denean, erakundearen sortze, jardura eta antolamendu arauak ezarri duten organoko titularrak erabakiko du ekarpena eta, halakorik ezean, legezko ordezkariak duen pertsonak.

#### **67. artikulua. Konpentsazio Batzarrei egindako ekarpena**

Arabako Foru Aldundiaren ondarearen barneko higiezinak edo eskubideak ematearekin Konpentsazio edo Itun Batzarretara gehitzea indarrean dagoen hirigintza araubideak arautuko du, eta horretarako beharrezkoa izango da aurretiazko berariazko atxikipena egotea. Sartzeak, parte-hartzeak edo ordezkariak dituzten ekimenak hauek gauzatuko dituzte:

- a) Ondare alorrean eskumenak dituen sailak, ondare ondasunak edo eskubideak direnean.
- b) Ondasunak lotuta dituen eta eskumenak dituen sailak, jabari publikoko ondasunak direnean, albo batera utzi gabe posible denean horiek desfektatzea eta atxikitzeari uztea proposatu ahal izatea.

## **2. AZPIATALA. KOSTU BIDEZKO XEDAPEN EKIMENETARAKO ESKUMENA**

#### **68. artikulua. Ondasun higiezinak eta eskubide errealak besterentzea**

1. Ondasun higiezinaren eta horien eskubide errealeen besterengarritasuna adosteko eskumena, eta horien besterentzeko eta horren baldintzak ezartzeko eskumena, hauek izango dute:

a) Ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak, lotura duten sailak hala proposatuta, horien balio unitarioa 300.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

b) Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta lotuta dauden sailak batera hala proposatuta, ondasunen balio unitarioa aurreko paragrafoan adierazitakoa baino altuagoa denean.

2. Ondasun higiezinaren besterentze kasuetan ondare alorrean eskumenak dituen sailak beraien egoera juridiko eta fisikoa arazteari ekingo dio, mugaketa gauzatuz beharrezkoa balitz eta Jabetza Erregistroan inskribatuz bertan erregistraturik ez balego.

3. Ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta Foru Gobernu Kontseiluak besterentze ebazpenen bitartez baimendu ahal izango dute besterendutako ondasunen alokatze edo alokatze kontratuak egitea, 63. artikuluko 3. atalean aurreikusitako inguruabarretan.

4. Dagozkion besterentze ebazpenetan, ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta Foru Gobernu Kontseiluak eskuratzailerik egin beharreko ordainketa aurrekontu ekitaldi bat edo batzuetan zehar atzeratzea erabaki ahal izango dute.

Kasu horretan, beharrezko bermeak eskatu ahal izango dira eskuratzailerik jasotako betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

## **69. artikulua. Ondasun higigarriak besterentzea**

1. Ondasun higiezinak besterentzea eta beronen baldintzak erabakitze eskumena honako hauei dagokie:

a) Ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuari, sailaren foru diputatuak edo ondasunak lotura duten foru erakunde autonomoaren, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoaren

edo foru administrazio partzuergoaren legezko ordezkariak hala eskatuta, horien izaera edozein izanda ere, ondasunen balio unitarioa 80.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.

b) Foru Gobernuaren Kontseiluari dagokio ondasunak besterentzea baimentzea, ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuaren eta ondasunak lotuta dituen saileko foru diputatuaren baterako proposamenez, ondasunen balio bateratua aurreko atalean ezarritako zenbatekoa baino handiagoa denean.

2. Ondasun higiezinak besterentze ebazpenaren ondorioz ondasunak desfektatuko dira edo atxikitzeari utziko zaio.

3. Bideratu beharreko espedientean salmentaren egokitasuna behar beste justifikatu eta egiaztatu beharko da.

### **70. artikulua. Gorpuzgabeko jabetzak besterentzea**

Jabetza gorpuzgabeen besterentzea Foru Gobernu Kontseiluak baimenduko du ondare alorrean eskumenak dituen sailak hala eskatuta, gaian eskumenak dituen sailak aurretiaz txostena eman ondoren.

Hala ere, besterendu beharreko ondasunen balio unitarioa 80.000 eurokoa edo gutxiagokoa baldin bada, besterentzea baimentzeko eskumena izango du ondare alorrean eskumenak dituen sailak edo ondasunak lotuta dituen foru erakunde autonomoaren, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoaren edo foru administrazio partzuergoaren legezko ordezkariak.

## **3. AZPIATALA. KOSTU BIDEZKO XEDAPEN EKIMENETARAKO PROZEDURA**

### **71. artikulua. Ondasun higiezinak besterentzeko prozedura**

1. Ondasun higiezinak besterentzea egiteko aurretiaz tasazioa egin beharko da, eta hala, Foru Arau honen 46. artikuluan ezarritako adjudikazio formak eta prozedurak jarraituko dira.

2. Besterentzea orokorrean enkante bidez edo lizitazio publiko bidez gauzatuko da balorazio



irizpide bakarrarekin. ALHAOn argitaratuko da, salbuetsiz besterentzea beste ondasun higiezin batzuk trukatur egin izana edo legez hori egiteko beste modu bat ezarrita egotea, hori egiteko beharra egiaztatzen duen aurretiazko espedientearekin.

Lizitazio oinarriak tasazioaren zenbatekora iritsi beharko du gutxienez, betiere ondasunaren gainean dauden kargak kendu ondoren, hala badagokio.

Lehen lizitazioan enkantearen neurria gutxienez iristen diren proposamenak baino ez dira onartuko.

Lizitazio bat baino gehiago egiten baldin bada, 46.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera lehenengo lizitazioaren ondorengo lizitazioen salmenta oinarrian metatutako beherapenak ezin izango du lehenengo lizitazio oinarriaren % 25 gainditu.

3. Ondasun higiezin besterentzea lehiaketa edo lizitazio publiko bidez egingo da adjudikazio irizpide anitzekin modu arrazoituan prozedura egokiagoa dela arrazoitzen denean adjudikazio irizpide bakarreko enkante edo lizitazio publikoaren aurretik.

4. Aurreko ataletan esandakoaren kaltetan izan gabe, organo eskumendunak, salbuespen gisa, ondasun higiezin zuzeneko besterentzea erabaki ahal izango du, aurrez ondare alorrean eskumenak dituen sailaren txostena aztertu ondoren, honako kasu hauetan:

- a) Besterentzea premiazkoa dela aitortzen denean.
- b) Jasotzailea irabazi asmorik gabeko erakundea edo interes publikoko fundazioa denean eta besterendutako ondasunak edo eskubideak interes orokorreko helburuetarako bideratzen direnean.
- c) Jasotzailea beste administrazio publiko bat edo sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko pertsona juridikoa denean edo diruzkoak ez diren ekarpenak direnean, sozietate publikoetan edo partaidetzako sozietateetan izenpetutako kapitalaren ordainketa gisa.
- d) Xedapen egintza beharrezkoa denean zerbitzu publikoko eginkizun bat betetzeko edo paragrafo honetako b) eta c) hizkietan aurreikusitakoez beste pertsona batek interes orokorreko helburu bat egiteko.

- e) Aurretiatzko lehia prozeduraren batek huts egin duenean edo hutsik geratu denean, betiere jatorrizko baldintzak aldatzen ez badira, prezioa lizitazio horretan onetsitako gutxienekoa baino baxuagoa ez denean eta prozedurak huts egin zuen edo hutsik geratutako egunetik bi urte baino gehiago igaro ez direnean.
- f) Orube edo lurzati soberakin jakin batzuen kasuan, formarengatik edo hedapen txikiarengatik bertan eraikitzerik ez badago eta xedapen egintzaren onuraduna mugakideren bat bada.
- g) Ekonomikoki ustiagarria den azalera bat eratzen ez duten landa finkak direnean, edo beren izaerarekin bat datorren erabilerarik ematen ez duten landa finkak direnean, eta xedapen egintzaren onuraduna mugakideren bat denean.
- h) Salmenta egiten denean legezko xedapen batek aitortutako lehentasunezko eskuratze eskubidea duen baten alde.
- i) Aparteko arrazoiengatik salmenta higiezinaren okupatzailearen alde egitea komenigarritzat jotzen denean.
- j) Industria sustatu, bultzatu eta berregituratzeko planen barruan sortutako zorrak ordaintzeko adjudikatu edo emandako ondasunen kasuan, adjudikaziodunak ondasuna plan horien barruko jardueretarako erabiltzen duenean.
- k) Derrigorrezko eskualdaketa eta lagapenetan, hala nola, zortasunetan eta derrigorrezko beste karga egintza batzuetan.
- l) Trukaketa bidezko besterentzeak direnean.
- m) Konpentsazio edo Ituntze Batzordeei eginiko ekarpen edo besterentzeak direnean.
- n) Ondasunaren izaera dela eta ezinezkoa edo oso zaila denean lehia publikoa egitea. Hau da, ondasunaren berezitasunak, bete beharreko beharra, eskaintzaren/eskariaren mugaketa edo urritasuna edo eragiketaren berezitasunak kontuan hartuz, adjudikazio mota hori egin behar

denean.

- o) Desjabetze prozeduran desjabetutako bati higiezinaren balio justua ordainduz adjudikazioa egiten denean.

4. atal honetan aurreikusitako besterentze prezioa orokorrean tasazioa izango da, albo batera utzi gabe Foru Arau honen 11.2. artikuluan zehaztutakoa. Hala ere, aurrekoa salbuetsiz, atal honen b), c) eta d) ataletan aurreikusitako kasuetan, besterentze prezioa tasazioarena baino baxuagoa izan ahalko da, jasotzailearen inguruabar espezifikoekin bat eginez.

Zuzeneko adjudikazioaren inguruabar erabakitzaile horiek guztiak espedientean behar bezala egiaztatuta geratu beharko dira.

5. Interesa duten bat baino gehiago zuzeneko adjudikazioaren inguruabar berean baldin badaude, hori ebazteko gertakari zehatzaren inguruabarreko interes orokorra kontuan hartuko da, eta horrelakorik ez badago edo berdina ez baldin bada, aurkezpen ordenaren arabera ebatziko da.

6. Jasotzaileari ezarritako mugak, baldintzak edo bermeak ez badira betetzen ondasunak eskubide guztiz itzuliko zaizkio Foru Ondareari, besterendu ziren titulua mantenduko dutelarik.

## **72. artikulua. Ondasun higigarriak besterentzeko prozedura**

1. Ondasun higigarriak besterentzeko prozedurak aurreko artikuluan ondasun higiezinentzat ezarritako arau berberak izango ditu, 71. artikuluko 2. atalean bigarren eta ondorengo lizitazioentzako oinarriari buruz adierazitakoak salbuetsiz, horrelakorik ez baita aplikatuko.

2. Kontsumo artikulua, nekazaritza ustiapeneko produktuak, basokoak, abeltzaintzakoak, merkataritzakoak edo industriakoak, argitalpenak edo propaganda produktuak, marketina, informazio produktuak edo oroigarriak besterentzeko eskumenak dituzten sailek zuzenean jendeari salmenta egin ahal izango diete, edo bestela, Foru Gobernu Kontseiluak edo Foru Arau honetako 1. artikulua 2. atalak zehaztutako erakundeen zuzendaritza organoak ezarritako baldintzak betez gauzatu ahal izango da.

## **73. artikulua. Jabetza gorpuzgabeak besterentzeko prozedura**

Ezargarrria zaion guztian, besterentze prozedura honako Foru Arau honen 46. atalean aurreikusitako enkante edo lizitazio publikoaren bidez egingo da, balorazio irizpide bakarrarekin, Foru Gobernu Kontseiluak, behar bezala egiaztatu beharko diren interes publikoko arrazoiak direla bide, ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuaren proposamenez, zuzeneko besterentzea baimendu ezean.

#### **74. artikulua. Beste erakunde batzuk besterentzea**

Arabako Foru Aldundiaren, bere foru erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta administrazio foru partzuergoen ondasunetan eskumenak dituzten bestelako erakunde publikoek hasitako nahitaezko desjabetze prozeduretan ordezkaritza egitea ondare alorrean eskumenak dituen sailari dagokio, albo batera utzi gabe sailek, bere foru erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoek eta administrazio foru partzuergoek gauzatutako ahalmenak.

### **3. ATALA. DOAKO BESTERENTZEAK**

#### **75. artikulua. Doako xedapen egintzak egiteko aukera ematen duten kasuak**

Eragin edo ustiatzea aurreikusten ez den ondasun edo eskubideen gainean erabaki ahal izango da doako xedapen egintzak egitea, honako kasu hauetan:

- a) Herri onurako edo interes publiko edo sozialeko helburuetarako, administrazio publikoen, izaera juridiko publikoko beste erakunde batzuen, foru sektore publikoko beste erakunde batzuen eta irabazi asmorik gabeko fundazio edo elkarte pribatuen alde.
- b) Fundazio pribatuen aldeko fundazio zuzkidura gisa.
- c) Ondasun higigarri galkorrak, zerbitzurako egokiak ez direnak edo erabili ezin diren ondorioak dituztenak, Foru Arau honen 64. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.
- d) Sustapen alorrean gauzatzen diren ondasunen edo eskubideen besterentzea eta laguntza eta diru-laguntza publikoak arautzen dituen araubidea betez.

- e) Derrigorrezkoak eta doakoak diren eskualdaketa, jabetza mugatze eta beste karga egintza batzuen kasuan.
- f) Batzar Nagusiek beren beregi baimendutako kasuetan.
- g) Foru Arau batean edo Lege batean aurreikusitako bestelako inguruabarrak.

## **76. artikulua. Doako xedapen egintzak egiteko eskumena**

1. Eskumenak esleitzeko arau hauen arabera erabakiko dira doako xedapen egintzak:

- a) Erakunde titularra Arabako Foru Aldundia denean eta ondasun higiezinak, eskubide errealak, jabego gorpuzgabeak edo ondasun higigarriak direnean eta horien balio unitarioa 80.000 euro baino gehiagokoa denean, doako xedapen egintza horiek erabakitzeko eskumena Foru Gobernu Batzordeak izango du ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuak hala eskatuta, albo batera utzi gabe atal honetako d) hizkian adierazitakoa.
- b) Ondasun higigarrien balio unitarioa 80.000 euro baino gutxiagokoa denean, doako xedapen egintza erabakitzeko eskumena ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatuak izango du, ondasunek interes historikoa, artistikoa edo kulturala dutenean salbu. Kasu horietan artikulua honetako 1.a) atalean xedatutakoa aplikatuko da.
- c) Erakunde titularra foru arau honetako 1.2. artikuluan aurreikusitakoetako bat, Arabako Foru Aldundiaz beste bat bada, erakundearen sortze, jarduera eta antolamendu arauak ezarri duten organoak erabakiko du doako xedapen egintza eta, halakorik ezean, legezko ordezkariak duenak.
- d) Ondasunen doako besterentzea Batzar Nagusiek baimendu beharko dute Foru Gobernu Kontseiluak hala eskatuta, besterendu beharreko ondasunaren balioa 600.000 euro baino gehiagokoa denean.

2. Xedapen egintza sail edo erakunde jakin baten eskuduntzei loturiko helbururen bat betetzeko bada, sailak edo erakundeak ondokoetarako izango du eskumena:

- a) Xedapen egintzaren nondik norakoak betetzen direla zaintzeko.
- b) Hala behar denean, laguntza eta diru-laguntza publikoei buruzko araudian ezarritako zehapen prozedura izapidetu eta ebazteko.
- c) Ondasunak eta eskubideak itzultzeko espedientea izapidetzeko. Hori ebaztea xedapen egintza egiteko eskumena duen organoari egokituko zaio.

Bestelako kasuetan, aipatutako eskumen horiek ondare arloan eskumenduna den sailari egokituko zaizkio.

### **77. artikulua. Doako besterentze prozedura**

1. Doako besterentzea orokorrean zuzeneko adjudikazio bitartez gauzatuko da.
2. Besterentze erabakian ezarritako epeak errespetatzen dituzten mugak, baldintzak edo bermeak ezarriko dira, eta bereziki ondasuna eskatzeko arrazoi izan zen jardueraren mantentzea edo erabilera bermatzekoak, baita hala badagokio, hirugarrenei ondasuna lagatzea debekatzekoak ere.
3. Ezarritako mugak, baldintzak edo bermeak ez badira betetzen ondasunak eskubide guztiz itzuliko zaizkio foru ondareari, besterendu ziren titulua mantenduko dutelarik.

### **78. artikulua. Ondasuna edo eskubidea itzultzea**

1. Dagozkion xedapen erabakietan ezarritako kasuetan, Foru Arau honetako 1.2. artikuluan ezarritako erakundeen artean lagapena egin duen erakundeari itzuliko zaizkio kapitulu honetan aipatutako ondasun eta eskubideak.
2. Itzultzea jasotzen dutenean, xedapen erabaki horiek ezarriko dute onuradunak ondasunak jaso zituenean zuten artapen egoeran baino egoera okerragoan ezin dituela itzuli, ez bada balio galera ondasun ohiko erabileraren ondorioz gertatu dela.
3. Itzultzea eragin duen xedapen egintza erabakitzeko eskumena duen organoari dagokio itzultzeko espedientea ebaztea.

## **V. KAPITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK TRUKATZEA**

### **79. artikulua. Ondasunak eta eskubideak trukatzea**

1. Jabari pribatuko ondasun eta eskubide higigarri eta higiezinak beste batzuen ordezkari izango dira, aurrez beraien besterengarritasun deklarazioa egin ondoren.
2. Ondasunen eta eskubideen trukea eta beronen baldintzak erabakitzeko eskumena honako hauei dagokie:
  - a) Ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuak, lotutako sailaren foru diputatuak hala proposatuta, balio gehieneko ondasunaren edo eskubidearen balio unitarioa 300.000 eurokoa edo gutxiagokoa denean.
  - b) Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen sailak eta lotuta dauden saileko titularrak batera hala proposatuta, ondasunen eta eskubideen balio unitarioa aurreko paragrafoan adierazitakoa baino altuagoa denean.
3. Aurreko atalean aipatzen diren proposamenek aldezkari aurreko espediente bat eskatuko dute; bertan trukea egiteko beharra eta trukatu nahi diren ondasunen balorazioa egiaztatzea behar izango da.
4. Trukatu beharreko ondasunen eta eskubideen arteko balorazio desberdina, horrela dagokionean, eskudirutan berdinduko da.

## **VI. KAPITULUA. PRESKRIPZIOA**

## **80. artikulua. Preskripzioa**

Jabari publikoko eskubideen gaineko eskubideak preskribitu egingo dira Arabako Foru Aldundiaren eta Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako gainerako erakundeen aurka, legeria zibilean eta merkataritza legerian ezarritakoa betez.

# **IV. TITULUA. ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK ERABILTZEA ETA USTIATZEA**

## **I. KAPITULUA. JABARI PUBLIKOKO ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK**

### **1. ATALA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **81. artikulua. Titulu gaitzailea izatea**

1. Inork ezin du jabari publikoko ondasunik okupatu edo ondasunok denoi dagokigun erabilera eskubidea gainditzen duen moduan erabili, horretarako baimentzen duen titulurik ez badu, organo eskumendunak emandakoa.

2. Jabari publikoaren tutoretzaren eta defentsaren ardura duten organoek aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen dela zainduko dute, eta, beharrezkoa denean, titulurik izan gabe jabari publikoko ondasunak okupatzen dituztenen edo ondasunon gaineko aprobetxamendu bereziari etekina ateratzen dioten aurka joko dute; horretarako, Foru Arau honetan ezartzen diren ahalak eta eskumenak erabiliko dituzte.

3. Jabari publikoko ondasunen gaineko baimenen eta emakiden arauketari dagokionez, lehenengo, baimen eta emakidok arautzen dituen legedi berezia aplikatuko da, eta, ondoren, arau berezirik ez badago edo arauok nahikoak ez badira, Foru Arau honetako xedapenak.

#### **82. artikulua. Erabilera araubidea**



Jabari publikoko ondasunak ondoko erabilera araubidearen menpe daude:

- a) Jabari publikoko ondasunen erabilera titulu honetako xedapenek eraenduko dute.
- b) Zerbitzuak edo bulegoak hartzen dituzten ondasunen erabilera zein zerbitzu publikoa ematera zuzendutako administrazioaren ondasunen erabilera, beharrezkoa bada, zerbitzuaren erabilerarako edo funtzionamendurako xedapen berezietan xedatutakoaren menpean jarriko da, eta, modu subsidiarioan, titulu honetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

### **83. artikulua. Jabari publikoko ondasunen erabilera motak**

Erabilera publikoko ondasunen erabilerari dagokionez ondokoak ulertzen dira:

a) Erabilera ohikoa: Erabilera berdin dagokie herritar guztiei; hortaz, batzuek erabiltzeak ez du eragotziko gainerako interesdunek ere erabiltzea. Erabilerak mota hauetakoak izango dira:

- Orokorra: inguruabar berezirik gertatzen ez denean.
- Berezia: erabilerak jabari publikoaren aprobetxamendu berezia dakarrenean eta hark, erabilera ohikoa eragotzi gabe, zenbait inguruabar agertzea dakarrenean (esaterako, arriskugarritasuna edo arrisku horren intentsitatea, lehentasun eskasia dagoenean, errentagarritasun berezia lortzea edo antzeko beste batzuk), eta inguruabar horiek denoi dagokigun erabileraren gehiegizko erabilera dakartenean edo denon erabilerarako kaltea dakartenean.

b) Erabilera pribatua: jabari publikoaren zati bat okupatzen da; hortaz, zati hori beste interesdun batzuek erabiltzea mugatu edo alde batera uzten da.

### **84. artikulua. Titulu gaitzaileak**

1. Ohiko erabilera orokorrak ez du baimenik behar, modu askean erabil daiteke, eta dituen muga bakarrak hauek dira: gainerako pertsonak egiten duten erabileraren ondoriozko mugak, ondasunen izaeraren errespetuaren eta ondasun horien zaintzaren ondoriozko mugak, eta erabilera hori

ordenatua izateko emandako garbitasun arauen eta aginduen ondoriozko mugak.

2. Ohiko erabilera bereziak baimena behar du, salbu eta erabilera horren hasierako iraupena bost urtetik gorakoa bada: kasu horretan, administrazio emakida behar da.

3. Erabilera pribatuak aurretik erabilera horren izaerarako egokia den titulua ematea behar du; titulu horrek arau hauek bete behar ditu:

- a) Okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin bakarrik egiten bada eta okupazioaren hasierako iraupena ez bada bost urtetik gorakoa, orduan, baimena behar da.
- b) Okupazioa obra edo instalazio finkoekin egiten bada edo okupazioaren hasierako iraupena bost urtetik gorakoa bada, orduan, administrazio emakida behar da.

4. Ondasun edo eskubideak atxikita dituzten sailei edo erakundeei lotutako erabilerak ez du behar artikuluko honetan jasotzen diren tituluak ematerik.

Egintzak edo kontratuak ondasuna okupatzeko gaitzen badu, eta araudiak ezartzen duen prozeduraren arabera kontratistari edo hirugarrenari agindu zaion eginkizuna edo jarduera betetzeko beharrezko tresna gisa erabilera edo okupazioa badagokio kontratista edo hirugarren horri, bada, orduan, kontratista edo hirugarren horrek egiten duen erabilerak edo okupazioak ez ditu arestian aipatu diren tituluak behar. Kasu horretan, kontratistak edo hirugarrenak egiten duen erabilerarako edo okupaziorako alde biek xedatzeko akta izenpetu behar dute; akta hori ondasuna euskarri den eginkizun edo jarduera egiteko enkargua jasotzen duen egintza edo kontratua formalizatzean egingo da.

Ez da behar ezta ere titulu gaitzailea hogeita hamar egun baino gutxiagoko baimen edo lagapenen kasuan edo hitzaldiak, mintegiak, aurkezpenak edo unean uneko beste ekitaldi batzuk antolatzeako, eta, oro har, aldi baterako eta era ez eskusiboan erabiltzeko baimenak, ondarezko eskubideak eskualdatzea ez dakartenak emateko direnean, eta betiere, edozein kasutan, onuradunarentzat erabilera ekonomikoa ez denean edo erabilera hori garrantzi gutxikoa denean.

5. Foru Arau honetako 82. artikuluko b) letran adierazitako ondasunen erabilera partzialerako baimen bereziak eman ahal izango zaizkie pertsona fisiko edo erakunde juridiko publiko edo

pribatuei, interes sozialeko edo orokorreko jarduerak edo aldi baterako helburuak edo funtzio publikoak betetzeko. Baimen berezi horien bitartez obrak edo instalakuntza finakoak egitea baimendu ahal izango da, eta ez dute bete beharko artikuluko honen 2. atalean ezarritako epea.

## **2. ATALA. BAIMEN ETA EMAKIDEI BURUZKO XEDAPEN OHIKOAK**

### **85. artikulua. Organo eskumendunak**

1. Baimenak eta emakidak emateko eskumena Foru Gobernu Kontseiluak edo horri lotutako sailek edo erakundeek izango dute, titulu honetan ezarritakoarekin bat eginez.

2. Ondasunaren edo eskubidearen erakunde titularra Arabako Foru Aldundia denean, eskumena titulu honetan ezarritako organoena izango da.

Ondasun edo eskubidearen titularra den erakundea Foru Arau honetako 1.2. artikuluan zehazten diren beste erakundeetako bat bada, eskumena erakundeon sortze, jarduera eta antolamendu arauak ezartzen duten organoko titularrari dagokio edo, horrelakorik ez badago, erakundearen legezko ordezkariari.

3. Arabako Foru Aldundiak 84.5. artikuluan adierazitako baimen bereziak emateko eskumena izango du, onuraduna zuzenbide pribatuko erakunde edo pertsona juridikoa edo nazioarteko erakundea denean.

4. Edonola ere, jabari publikoko baimenak edo emakidak emateko, aldatzeko edo azkentzeko ebazpenak ondare arloan eskuduna den sailari jakinarazi behar zaizkio.

### **86. artikulua. Baldintza orokorrak**

1. Foru Aldundiak, bereziki eraginpeko sailak edo erakundeak proposatuta, baldintza bereziak onets ditzake emakiden edo baimenen kategoria jakin batzuk emateko, eta baldintza horiek ALHAOn argitaratu behar dira; orobat, aplikazio orokorreko baldintza berezien eredu tipoak ere onets ditzake Aldundiak.

2. Baldintza orokorrik ez baldin badago, emakidak eta baimenak ondasunak lotutako sailak ezarritakoak izango dira edo titularrak diren organismo publikoen menpeko diren edo atxikita dituztenek ezarritakoak izango dira.

3. Baimenean eta emakidan betebeharrak osagarriak ezar dakizkioke titularrari, interes publikoko arazoak direla eta beharrezko irizten bazaio; betebeharrak horiek honakoak izan daitezke adibidez: baloreen eskuraketa, sozietateen gaineko zenbait betekizun hartzea eta betetzea, edo antzeko izaera duten beste batzuk.

4. Baldintza orokorretan edo berezietan beste puntu batzuk ere ezar daitezkeen arren, baimen edo emakida erabakiak honakoak jaso behar ditu gutxienez:

- a) Ondasunaren edo eskubidearen erabilera araubidea.
- b) Baimena edo emakida arautzen duen ekonomia araubidea.
- c) Eman beharreko bermea, beharrezkoa bada.
- d) Artapen eta mantentze gastuen, zergen, tasen eta gainerako tributuen bereganatzea, bai eta ondasun horren izaeraren arabera erabiltzeko eta jasotzen den egoeran itzultzeko konpromisoa ere.
- e) Baimenaren edo emakidaren onuradunaren konpromisoa bere kontura lortzeko bai ondasuna erabiltzeko bai ondasun horren gainean egin beharreko jarduera egiteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak.
- f) Okupazioaren ondoriozko erantzukizunaren bereganatzea, eta, beharrezkoa bada, dagokion aseguru poliza formalizatzeko nahitaezotasuna adieraziko da.
- g) Lagatzaileak beretzat gordetzea baimenaren helburu den ondasuna ikuskatzeko ahalmena, ondasuna baimenean ezartzen denaren arabera erabiltzen dela bermatze aldera.
- h) Hala denean, luzapenaren eta subrogazioaren epea eta araubidea; dena den, horrek aurretiazko baimena behar du.
- i) Azkentzeko arazoak.

Xedapen honetan ezarritakoa Foru Arau honen 84.5. artikuluan aurreikusitako erabilera bereziko baimenei aplikatuko zaie, horien ezaugarriak, helburua eta xedea kontuan hartuz ezarri beharreko neurrian.

## **87. artikulua. Baimenen eta emakiden ekonomi araubidea eta bermeak**

Baimenen edo emakiden titularrari bermea eskatu ahal izango zaio, baimen edo emakida horiei aplikagarria zaien ekonomi araubidea edozein dela ere. Bermea egokien irizten zaion erakoa izango da, eta ondokoak estali behar ditu: ondasunaren erabilera eta ordezipena edo konponketa, edo kalte-ordaina, baldin eta alteraziorik badago. Sortzen diren gastuak kobratzeko premiamendu bidea erabili ahal izango da, gastuok emandako bermearen zenbatekoa gainditzen badute.

## **88. artikulua. Emateko prozedura**

1. Baimenak eta emakidak emateko prozedura erakunde emaileak hala adierazita edo interesatuak hala eskatu ondoren hasiko da.

Jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak publizitate eta lehia araubidean emango dira. Dena den, xedapen egintzen eta kostu bidezko ustiapenen zuzeneko ematea ere erabaki daiteke, hain zuzen ere, ondoko kasuetan: Foru Arau honetako 71. artikuluko 4. atalean kostu bidezko zuzeneko adjudikaziorako aurreikusten diren kasuetan; behar bezala justifikatutako inguruabar bereziak gertatzen direnean, edo arau honetan edo kasu bakoitzari aplikagarriak zaizkion beste arau batzuetan zehazten diren beste kasu batzuetan.

2. Baimena edo emakida emateko prozedura inizatiba propioz hasteko, eskumena duen organoak justifikatu egin beharko du hori egitea egokia edo beharrezkoa dela bere eskumenekoak diren helburu publikoetarako. Horrez gain, ondasunak jabari publikoaren barnekoa izaten jarraitu beharko du eta hala badagokio, zuzeneko adjudikazioaren jatorria ere justifikatu beharko dira.

Iniziatiba propioz lehia araubidean prozedura hastea ebazten denean, ALHAOn argitaratutako deialdiaren bitartez gauzatuko da. Interesa dutenek hogeita hamar egun naturaleko epea izango dute eskariak aurkezteko, salbuetsiz behar bezala arrazoitutako premiazko kasuak egotea. Hala denean, epea erdira murriztuko da.

3. Prozedura pertsona interesdunak eskatuta hasteko, eskaria egiten duenak txosten bat aurkeztu behar du, eta bertan, proposatzen duen okupazioaren komenigarritasuna, egokitasuna eta gainerako inguruabar guztiak azaldu beharko ditu. Eskumenak dituen organoak eskaria aztertuko du eta izapidetzerako onetsiko du edo ukatu egingo du. Aldundiak nahieran onetsi dezake eskaria izapidetzea, edo ezetsi ere egin dezake.

Izapidetzerako onesten baldin bada, prozedura hastea ebatziko da eta arrazoituta erabaki ahal izango da eskatzaileari zuzeneko adjudikazioa egitea. Hala ere, interesatu posibleei jakinarazi ahal izango die iragarki publikoaren bitartez. Kasu horretan, hogeita hamar egun naturaleko epea ezarriko da, eta epe horretan beste eskari batzuk aurkeztu ahal izango dira ondasun bera okupatzeko xede berarekin edo ezberdinekin. Hori guztia salbuespen kasuak albo batera utzi gabe. Horietan, behar bezala justifikatu ondoren, epea erdira murriztuko da.

4. Emakida edo baimena ematea edo ez ematea erabakitzeko, eskatzen den erabilerak edo aprobetxamenduak interes eta erabilera publiko handiena izan dezala hartuko da kontuan, eta hori baloratzeko, baldintzen pleguan ezartzen diren irizpideak jarraituko dira.

## **89. artikulua. Administrazio isiltasuna**

Baimenak eta emakidak emateko prozedura ebazteko, gehienez, sei hilabeteko epea egongo da, eta eskaria ezetsizat jo daiteke epe horren barruan ebazpenik jakinarazten ez bada.

## **90. artikulua. Jabari publikoko baimenak eta emakidak azkentzeko arrazoiak**

1. Arrazoi hauek egon daitezke jabari publikoko baimenak eta emakidak azkentzeko:

- a) Erabiltzailearen edo emakidadun indibidualaren heriotza edo ondoren gertatutako ezintasuna edo nortasun juridikoaren azkentzea. Heriotzak edo desgaitasunak ez dute salbuetsiko organo emaileak erabakitzen duenean baimena edo emakida oinordekoen alde mantentzea, horiek hala eskatuta. Ez jarraitzea erabakitzen bada, geratzen den denboragatik ezin izango da indemnaziaziorik kobratu.
- b) Bat egite, irenspen eta zatiketen ondorioz gertatzen diren erabiltzailearen edo emakidadunaren nortasun juridikoaren eskualdaketetan edo aldaketetan aurretiazko baimenik ez egotea.
- c) Epemuga bete izana.
- d) Emakida indemnazioa ordaindu ondoren erreskatatzea, edo baimenaren aldebakarreko ezeztapena.
- e) Emakida edo baimena alde bien adostasunez suntsitzea.

- f) Emakida edo baimeneko kanona edo tasa ez ordaintzearen ondoriozko suntsitzea, edo emakidaren edo baimenaren titularraren betebeharretan ez-betetze larriren bat izatearen ondoriozko suntsitzea; emakida edo baimena eman zuen organoak adierazi behar du ez-betetzea egon dela.
- g) Ondasuna desagertzea edo aprobeixamendua agortzea.
- h) Ondasunaren lotura bukatzea. Kasu horretan likidatu egingo da, Foru Arau honen 92. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- i) Emakida edo baimena arautzen duten baldintza berezietan ezar daitezkeen beste edozein arrazoi.

2. Artikulu honen 1. ataleko f) letran aurreikusitakoarekin bat eginez bere klausulak edo baldintzak ez betetzearen ondorioz emakida suntsitzeko egiten den espedientea irekitzean, horren berri emango zaie hipoteka hartzekodunei, beraien eskubideak defendatzeko aukera izan dezaten.

#### **91. artikulua. Azkentzearen ondorioak**

1. Emakida edo baimena suntsitzen denean, jabari publikoko okupatutako ondasunaren gainean dauden obrak, eraikuntzak eta instalazioak kendu edo eraitsi egin behar ditu baimenaren edo emakidaren titularrak, edo, betearazte subsidiario bidez, horiek guztiak erakunde emaileak egingo ditu, titularraren kontura, salbu eta obra, eraikuntza edo instalazio hori mantentzea ezarri bazen tituluan, edo titulua emateko eskumenduna den organoak hala erabakitzen badu.

2. Titulua azkendu eta gero mantentzen diren obra, eraikuntza eta instalazioak dohain eta kargarik gabe eskuratuko ditu ondasunaren titularra den erakundeak.

3. Emakidaren kasuan, erreskate aurreratua egiten bada aurreko artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiaren arabera, titularrak kalte-ordaina jasoko du emakida lehenago azkentzeak eragin dion kalte material zuzena ordaintzeko, eta erreskatea gertatzen den egunean bermea jabetza erregistroan inskribatuta daukaten hartzekodun hipotekarioen eskubideak kontuan hartuko dira kalte-ordainaren zenbatekoa eta hartzaileak zehazte aldera.

#### **92. artikulua. Emakidaren edo baimenaren xede den ondasuna desafektatzea**

1. Emakidaren edo baimenaren xede den jabari publikoko ondasuna desafektatzen bada, emakidak eta baimenak ondoko arauen arabera azkenduko dira:

- a) Gozamenerako epea bukatuta duten emakiden edo baimenen kasuan horien iraungitasuna adieraziko da, bai eta erakunde emaileak erreskate askerako ahalmena eperik zehaztu gabe gordeta duen emakiden edo baimenen kasuan ere.
- b) Gainerako baimenen eta emakiden kasuan, berriz, bakoitzaren erabakietan zehazten diren epeak mugaeguneratzen diren heinean adieraziko da horien iraungitasuna.

2. Azkentzen ez diren bitartean, eduki berarekin mantenduko dira baimen eta emakida horien ondoriozko harreman juridikoak. Dena dela, harreman juridiko horiek handik aurrera zuzenbide pribatuak arautuko ditu, eta jurisdikzio ordena zibila arduratuko da harremanok direla eta sortzen diren auziez.

3. Aurreko hori guztia horrela izanik ere, erakunde emaileak geratzen diren eskubideak libratzea erabaki dezake edo, hala denean, hori egitea eska diezaioke Arabako Foru Aldundiari, baldin eta irizten badio eskubide horiei beren indarraldia amaitzean eustea kaltegarria izan litekeela ondasunei ondoren emango zaien erabilerarako, edo irizten badio ondasunok besterentzen direnerako nabarmen galduko dutela.

### **3. ATALA. JABARI PUBLIKOKO BAIMENEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK**

#### **93. artikulua. Baimenak emateko eskumena eta prozedura**

- 1. Baimenak emateko eskumena ondasuna atxikita duen sailak edo erakundeak izango du.
- 2. Baimenak zuzenean eskatzaileei emango zaizkie, baldintzak betetzen baldin badituzte. Salbuespenez, edozein arrazoi dela eta kopurua murriztuta baldin badago, lehia araubidea aplikatuko litzateke. Horrelakorik egitea beharrezkoa ez denean eskatzaileen baldintza bereziak baloratu behar ez direlako, zozketa egingo da, araubideko baldintzetan bestelakorik ezarri ezean.

#### **94. artikulua. Epea eta emateko eta ezeztatzeke beste baldintza espezifikoko batzuk**



1. Baimenak ez dira eskualdagarriak izango, baldin eta horiek emateko aintzat hartu behar bada baimendunaren egoera pertsonala edo baimendunen kopurua mugatuta badago, baimenak arautzen dituzten baldintzek baimenen eskualdaketa onartzen dutenean izan ezik.

2. Baimenen indarraldia ezin da bost urtetik gorakoa izan, baina baimenok luzatzea ere aurreikusi daiteke, betiere hasierako baimena gainditzen ez duten epeetan; dena den, baimenaren iraupen osoa, luzapenak barne, ezin da hogeita hamar urtetik gorakoa izan.

3. Administrazioak, aldebakarrez, edozein unetan ezezta ditzake baimenak, interes publikoko arrazoiak direla eta, eta horrek ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortuko. Ondoko kasuetan ezezta daitezke baimenak: bateraezinak direnean ondoren onetsi diren baldintza orokorrekin, jabari publikoan kalteak eragiten dituztenean, baimenaren xede diren ondasunak interes publiko handiagoko jardueretarako erabil daitezzen eragozten dutenean, edo baimenek kalte egiten diotenean ondasuna xede emanda dagoen erabilera orokorrari edo helburuari.

Baimen erabakian aldebakarreko ezeztapenaren onarpena ere jasoko da; ezeztapenak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik emango, eta interes publikoko arrazoiak direla eta egin daiteke paragrafo honetan xedatzen diren kasuetan.

4. Kontrakoa xedatu ezean, baimenak ematea aukerazkoa izango da, baina emate hori titulu honetan ezarritako prozedurekin eta edukiekin bat eginez gauzatu beharko da. Helburu zehatzerako emango dira eta horien xedea, iraupena eta mugak zehaztu egin behar dira. Emakida eta baimen horiek beren helburu diren ondasunen gaineko ikuskaritzako eta zaintzako ahalmenak dituzte erantsita, bai eta izan litezkeen instalazioen edo eraikuntzen gainekoak ere.

5. Baimenak azkentzen diren kasu guztietan, organo emaileak espedientea hasiko du. Espediente horretan adieraziko du onuradunak zein mailatan bete dituen bere betebeharrak, zein den xede emanda zeuden jabari publikoko ondasunen egoera eta erabileran duten balioa, eta adieraziko du, halaber, egokia den espedientea irekitzea Foru Arau honetako VII. tituluan xedatzen denaren arabera dagozkion erantzukizunak exijitzeko.

#### **4. ATALA. JABARI PUBLIKOKO EMAKIDEI BURUZKO XEDAPEN ESPEZIFIKOAK**

## **95. artikulua. Jabari publikoko emakidak**

1. Jabari publikoko ondasunen emakida pribatuak edo aprobetxamendu bereziko emakidak Foru Arau honen 1.2. artikuluan adierazitako erakundeentzat hautazkoak izango dira. Emakida horiek aplikatu beharreko araubide espezifikoaren eta Foru Arau honen aurreikuspen eta garapenaren arabera arautuko dira.

2. Emakidak helburu zehatzerako emango dira eta horien xedea, iraupena eta mugak zehaztu egin beharko dira. Emakida eta baimen horiek beren helburu diren ondasunen gaineko ikuskaritzako eta zaintzako ahalmenak dituzte erantsita, bai eta izan litezkeen instalazioen edo eraikuntzen gainekoak ere.

3. Emakidak doakoak izan ahalko dira, kontraprestazioarekin edo baldintzekin eman ahal izango dira edo legez aurreikusitako tasa edo kanonari lotuta egon ahal izango dira.

Ez dira egongo tasari edo kanonari lotuta horien jabari publikoko ondasunen erabilera pribatuak edo aprobetxamendu bereziak ez duenean emakidaren titularrarentzako erabilera ekonomikorik, edo, erabilera hori egonez gero, erabilerak edo aprobetxamenduak onuradunarentzat baldintzak edo kontraprestazioak dituenen, zeintzuen bitartez hori deuseztatzen den edo garrantzirik gabekoa bihurtzen den.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetarako inguruabar hori jasoko da baldintzen pleguan edo emakidaren klausuletan.

4. Jabari publikoko ondasunen eta eskubideen emakida titularrak ezin izango dira izan Kode Zibilean kontratatzeko aurreikusitako debekuen barne daudenak.

Emakida eman eta gero titularra debeku horietako baten pean egongo balitz, emakida azkendu egingo litzateke.

5. Emakiden iraupenaren gehienezko epea beren berariazko araudian zehazten dena izango da. Bertan eperik zehazten ez bada, beren iraupenak ezin izango du hirurogeita hamabost urteko epea gainditu; ordea, motzagoa izaten bada, hasierako epea luzatu ahal izango da aipatutako gehienezko epera heldu arte.

6. Kasu guztietan, emakidak jabetza eskubidea babestuz eta besteren kalte gabe emango dira, berekin epemuga baino lehen kalte-ordain baten bidez berreskuratze ahalmena erabiltzeko aukera ekarriz bat-batean gertatutako interes publikoko gorabeherak horrela justifikatzen badute. Era berean, hartzekodunak bermeak eskatu ahal izango ditu ondasunak edo instalakuntzak egoki erabiltzen direla bermatzeko.

## **96. artikulua. Emakidak emateko eskumena**

1. Emakidak emateko eskumena Foru Gobernu Kontseiluak izango du alorrean eskumenak dituen sailaren edo erakundearen foru diputatu titularrak hala proposatu ondoren.

2. Zerbitzu publikoa emateko eskumena duen saila, erakunde autonomoa, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoa eta hartarako behar den jabari publikoko ondasuna atxikita duena bat ez badira, emakida erakunde edo sail horien proposamenaren bidez eman beharko da eta jabari publikoaren aldaketa ekarriko du berekin.

3. Zerbitzu publiko bat emakida araubidean emateko jabari publikoko ondasun baten erabilera komun berezia edo erabilera pribatiboa beharrezkoa denean, horretarako baimena edo emakida, erabilera horri dagokionaren arabera, zerbitzu publikoa emateko emakidan inplizitu dagoela ulertuko da.

## **97. artikulua. Formalizazioa**

1. Adjudikatzeko prozedura edozein dela ere, behin emakida emanda, emakida hori administrazio agirian formalizatu behar da. Agiri hori titulu nahikoa izango da emakida jabetza erregistroan inskribatzeko.

2. Ondasunaren edo eskubidearen titulartasuna Arabako Foru Aldundiari dagokionean, dagokion sailak emakida administrazio agirian formalizatu beharko du. Gainerako kasuetan, eskumenak dituen organoa erakunde bakoitzaren arauetan ezarritakoa izango da.

3. Sektore araudiak, beharrezkoa bada, exiji dezakeen jakinarazpena gorabehera, emandako emakidak Foru Ondarearen Ondareko Ondasunen eta Eskubideen Inbentario Nagusiari jakinarazi

behar zaizkio.

## **98. artikulua. Administrazio emailearen eskubideak eta betebeharrak**

1. Besteak beste, hauexek dira administrazio emailearen eskubideak:

- a) Emakidak hartzen dituen jabari publikoko ondasunen gainean duen titularitateak datozkion jabari ahalmenak erabiltzea.
- b) Emakidaren jabari publikoko ondasunen erabilera, akzesioz gehituak barne, eta hala bada, obrak eta hobekuntzak, berrekuratzeko ahalmenak erabiltzea.
- c) Emakida kontrolatu eta zaintzea eta haren gainean polizia administratiboaren eginkizuna gauzatzea.
- d) Kontraprestazioa, tasa edo kanona jasotzea, hala ezarrita baldin badago.

2. Hona hemen administrazio emailearen betebeharrak:

- a) Emakidaren klausulak errespetatzea.
- b) Emakidari atxikitako ondasunak emakidadunaren esku jartzea, horretarako bere esku dituen pribilegioak erabiliz eta horiek disfrutatzen direla bermatzea.
- c) Hala badagokio, eta erreskatatzea baldin badago, emakidaren titularra indemnitatzea.
- d) Emakidaren titularrari jarritako fidantza itzultzea, hala dagokionean.
- e) Dagokion araudian eta emakida klausuletan zehaztutako beste edozein betebeharrak.

## **99. artikulua. Emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak**

1. Hauek dira emakidadunaren betebeharrak:

- a) Emakidadunaren eskubideak dira emakidaren erabilera eta gozamina, emakidaren klausulen eta titulu honetan ezartzen denaren arabera.
- b) Emakidadunak ondasun batzuen gainean indarrean dauden eskubideak baditu ondasun horiek jabari publikokoak zirenean emandako emakiden ondorioz, eta ondasun horiek kostu

bidez besterentzen badira, eskubide horien titularrak lehentasunezko eskuratze eskubidea izango du.

Eskubide hori erabiltzeko hogeit egun naturaleko epea izango du eskubidearen titularrak, finka besterentzeko erabakia, prezioa eta eskualdaketaren beste oinarrizko baldintzak modu frogagarrian jakinarazten zaizkion egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Jakinarazpenik ezean edo besterentzea jakinarazi diren baldintzetan baino beste batzuetan egiten bada, salmenta jabetza erregistroan inskribatu eta hurrengo egunetik hasita hogeita hamar egun naturaleko epean erabili ahal izango da eskubide hori.

Ez da lehentasunezko eskuratze eskubiderik sortuko ondasuna dohain laga edo titulartasuna transferitzen zaienean, edozein negozio juridikoren bidez, herri administrazioei, herri erakundeei edo foru sektore publikoko bestelako erakundeei, erakunde instrumentalei edo nazioarteko erakundeei.

## 2. Hauek dira emakidadunaren betebeharrak:

- a) Kontraprestazioa egitea edo ezartzen den tasa edo kanona ordaintzea.
- b) Bermea eratzea. Emakidaren behin betiko adjudikazioa emakidadunari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpenaren hurrengo hamabost egunetan, hala ezartzen baldin bada, behin betiko bermea eratu beharko du emakida kontratuan ezarritako baldintzak betez.
- c) Behin emakida adjudikatuta, titularrak nahitaez erabili behar du. Emakidak eskualdagarriak dira, salbu eta emakidadunaren ezaugarri pertsonalen arabera eman diren kasuetan eta araudi espezifikoak horrela ezartzen duen kasuetan; nolana ere, emakidak eskualdatzeko, emakida ematen duen organoaren aurretiazko baimena behar da.
- d) Dagokion unean, administrazio emaileari ondasunak gutxienez eman zireneko antzeko egoeran itzultzea, beren erabilera arruntaren ondorioz jasandako narriadura salbuetsiz.
- e) Dagokion araudian eta emakida klausuletan zehaztutako beste edozein betebeharrak.

## **5. ATALA. ERABILERA KO DOAKO LAGAPENAK**

### **100. artikulua. Jabari publikoko ondasunen doako lagapenak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen foru diputatuak proposaturik, sektore publikoko edozein erakunderen aldeko jabari publikoko ondasunen doako lagapena baimendu ahal izango du, aurrez beronen onura publikoa justifikatzen duen espedienteari hasiera eman ondoren eta berrogeita hamar urteko eperako gehienez.

2. Ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatuak, atxikita dauden foru organismo autonomoaren, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoaren edo administrazio foru partzuergoaren titularrak edo legezko ordezkariak hala eskatuta, ondasun higigarrien doako lagapena egikaritu beharko du gehienez ere hogeitaz urterako.

3. Erakunde onuradunak inposatu zaizkion baldintzak ez betetzeak edo epea amaitu izanak zehaztuko du erabiltzeko lagapenaren iraungipena.

4. Egindako ondasun higiezinaren lagapen guztiak jakinaraziko zaizkie Batzar Nagusiei, baita horien luzapenak ere, hala dagokionean.

### **101. artikulua. Artelanak mailegatzea.**

Arabako Foru Aldundiaren jabetzako interes historikoko, artistikoko edo kulturalako ondasun higigarrien maileguak ondare alorrean eskumenak dituen sailak ebatziko ditu aurretiaz atxikitako sailek txostena egin ondoren, eta gehienez ere hogeitaz urteko eperako, luzapenak barne.

## **6. ATALA. JABARI PUBLIKOAREN ERRESERBAK**

### **102. artikulua. Jabari publikoaren erreserbak**

1. Arabako Foru Aldundiak beretzat erreserba dezake erabilera orokorrera zuzendurik dauden bere titulartasuneko ondasunen erabilera eskusiboa Aldundiaren eskumeneko xedeak betetzeko, eta hori egitea justifikatzen duten herri onurako edo interes orokorreko arrazoiak badaude edo araubide espezifikokoak hala zehazten badu.
2. Erreserbaren iraupena erreserba hori erabakitzerakoan adostu ziren xedeak betetzeko beharrezkoa den denborara mugatuko da.
3. Erreserba aitortzen Foru Gobernu Kontseiluarekin bat eginez gauzatuko da, ondare alorrean eskumenak dituen sailaren foru diputatu titularrak hala eskatuta, ALHAOn argitaratu beharko da eta Jabetzaren Erregistroan inskribatu beharko da.
4. Erreserba nagusitu egingo zaie ondasunek izan ditzaketen beste erabilera guztiei; erreserbak inplizitu darama erreserba horrekin bateraezinak diren eta lehendik dauden eskubideen herri onurako deklarazioa eta eskubideok, desjabetzearen ondorioetarako, okupatzeko beharrezana.

## **II. KAPITULUA ONDARE ONDASUNAK ETA ESKUBIDEAK**

### **1. ATALA. KOSTU BIDEZKO APROBETXAMENDUA ETA USTIAPENA**

#### **103. artikulua. Jabari pribatuko ondasunak ustiatzeko eskumena**

Ekonomi etekina eman dezaketen jabari pribatuko ondasunak zuzenean ustiatu ahal izango ditu erakunde edo partikular batek, Foru Gobernu Kontseiluari dagokiola, ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatu titularrak proposaturik, ustiaketa modua xedatzea hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

#### **104. artikulua. Ustiaketa zuzena edo erakunde baten bidezkoa**

Foru Gobernu Kontseiluak ustiaketa zuzenean edo erakunde baten bidez egitea erabakitzen badu, beronen baldintzak zehaztuko ditu eta berauek zehazki betearazteaz arduratuko da.

## **105. artikulua. Partikularrek ustiatzea**

1. Foru Gobernu Kontseiluak ustiaketa partikularren esku uztea erabakitzen badu, ustiaketaren oinarriak zehaztuko ditu, hala nola dagokion kontratuarenak, eta antolamendu juridikoan aurreikusitako edozein era hartu ahal izango du.

2. Oro har, kontratuaren adjudikazioa lizitazio publikoaren bidez egingo da, eta zuzeneko adjudikazioa honako kasu hauetan onetsiko da:

- a) Prozedura hori erabiltzeko interes publikoko edo sozialeko arrazoiak daudenean espedientean egiaztatuta.
- b) Foru Administrazioak ondasuna lagatzeagatik jasotzen duen ekonomi ordaina urteko 6.000 euro baino gutxiagokoa denean.
- c) Ustiaketa zentzuz gauzatzeko gai den pertsona fisiko edo juridiko bakarra dagoenean, espedientean egiaztatuko dena.

3. Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen saileko titularrak hala proposatuta, ustiapen epea luzatzea baimendu ahal izango du hasierako epea gainditzen ez duen epe batean.

4. Edozein pertsona natural edo juridikoren subrogazioak adjudikaziodunaren eskubide edo beharretan Foru Gobernu Kontseiluaren baimena beharko du, beharrezkoa izanik pertsona subrogatuak kontratatzeko beharrezko ahalmena izatea eta hasierako adjudikazioan eskatutako betebeharrak biltzea.

## **2. ATALA. DOAKO ERABILERA LAGAPENA**

### **106. artikulua. Jabari pribatuko ondasunen doako lagapenak**

1. Foru Gobernu Kontseiluak, ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatu titularren proposamenez, beren ustiapen edo atxikipena aurreikusteko modukoa ez den jabari pribatuko



ondasun higiezin erabilera dohainik laga ahal izango du erabilera publikoko xedeetarako eta hamar urteko eperako gehienez.

2. Lagapen erabaki bakoitzean zehaztutako epeak hasierakoa bezalako aldietan luzatu ahal izango dira hurrenez hurren, lagapenaren titularrak horrela eskatzen badu, akuraren isilbidezko luzapena baztertuta geratuz. Luzapen erabakia Foru Gobernu Kontseiluak hartuko du ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatu titularraren proposamenez.

3. Atal honen xedeetarako erabilgarritasun publikokotzat jotzen dira honako hauei egindako erabilera emakidak:

- a) Administrazio Publikoari eta beren erakunde instituzionalari egindakoak.
- b) Onura publikoak izendatutako erakundeei egindakoak.
- c) Irabazteko asmorik ez duten elkarteak.

4. Batzar Nagusietan lagapen hauen eta, horrela dagokionean, beren luzapenaren berri emango da.

5. Ondasun higigarrien erabilera ondasun higiezinentzako ezarritako baldintza berdinetan laga ahal izango da gehienez ere bost urterako. Epe hori artikulua honen 2. atalean ezarritako moduan luzatu ahal izango da. Kasu horretan, lagapena onesteko organo eskumenduna ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatu titularra izango da.

6. Edonola ere, lagatutako ondasunak interes publikoko edo sozialeko helburuetarako erabiliko dira, eta emakida baimentzeko erabakiek horien xede zehatza adieraziko dute.

7. Lagatutako ondasunen jabetza Arabako Foru Aldundira itzuliko da hurrengo kasu hauetan:

- a) Erabakian ezarritako epearen barruan zehaztutako xederako erabiltzen ez direnean, edo hau bukatutakoan erabiliak izateari uzten diotenean.
- b) Lagapenaren epea edo, hala bada, luzapenarena, amaitzen denean.
- c) Erabilera desegokia dela bide ondasunek kalte larriak jasaten dituztenean; horrelako kasuan Arabako Foru Aldundiak ondasunek jasandako kalte eta narriaduren balioaren ordaina jasotzeko eskubidea izango du, aurrez perituek tasazioa egin ondoren.

d) Arabako Foru Aldundiak horien jabetza itzuli nahi duenean.

Horretarako, dagokion espedientea izapidetuko da, eta interesatuei entzunaldirako izapidetzea emango zaie.

## **V. TITULUA. ENPRESA ONDAREA**

### **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **107. artikulua. Enpresa ondarearen kontzeptua, titulartasuna eta araubidea**

1. Titulu honen ondorioetarako ondokoak dira enpresa ondareak: merkataritza sozietateen kapitala ordezkatzeko duten baloreak, obligazioak eta akzio bihur daitezkeen obligazioak, lehentasunezko harpidetza eskubideak, aukera kontratu finantzarioak, finantza trukaketako kontratuak, partaidetza kredituak eta antolatutako bigarren mailako merkatuetan negozioa daitezkeen beste batzuk, baldin eta Arabako Foru Aldundiarentzako eskubideak ordezkatzeko badituzte.

2. Arabako Foru Aldundiak, Batzar Nagusiak salbuetsiez, Foru Arau honetako 1.2. artikuluan adierazitako guztien artean enpresa ondareko ondasunen titulartasuna izan dezake bakarrik. Ondasun eta eskubide horiei dagozkien tituluak edo gordailu frogagiriak ondare alorrean eskumenak dituen sailean gordeko dira.

3. Titulu honetan xedatutakoak arautzen ditu enpresa ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, eta, bertan ezarrita ez dagoenerako, Foru Arau honetan jasotako gainerako xedapenetan, Foru Arau hau garatzeko eta betearazteko ematen diren xedapenetan, aplikatzekoak diren zuzenbide publikoko gainerako arauetan eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

#### **108. artikulua. Enpresa ondarea eskuratzeko prozedura eta eskumena**

1. Foru Arau honetako III. tituluaren ezarritako prozeduren bidez edo antolatutako bigarren mailako merkatuen bidez eskuratu ahal izango dira enpresa ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak.

2. Enpresa ondareko ondasunak eta eskubideak jasotzeko eskumena Foru Gobernu Kontseiluak

izango du, ondare alorrean eskumenak dituen saileko foru diputatu titularraren proposamenez.

3. Erosketaren bidez eskuratzeko erabakiak erosketaren zenbatekoa zehaztuko du, onartuta ohi dauden balioespen metodoen bidez. Baloreek bigarren mailako merkatu antolaturen batean kotizatzen badute, eragiketa egiten den unean eta egunean merkatuak ezarritako balioa izango da eskuratzeko prezioa.

4. Edonola ere, uste bada baloreen ohiko negoziazio bolumenak ez duela bermatzen merkatuko prezio bat egoki eratzea, eskuraketa edo balioespina egiteko legez onar daitekeen beste metodo bat erabilia erabakiko ditu baloreen eskuraketa eta prezioaren zehaztapena.

Foru Gobernu Kontseiluak izendatutako organoari dagokio kapitala ordezkatzan duten baloreen harpidetza egitea.

#### **109. artikulua. Bazkide eta ordezkaritza eskubideen erabilera**

1. Arabako Foru Aldundiko bazkide eskubideak egikaritzea foru sektore publikoa osatzen duten sozietateen edo erakundeen zuzeneko parte-hartzaile gisa Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, Kontseiluak berak sail bati esleitzen ez baldin badio.

2. Arabako Foru Aldundiak partaidetutako sozietateetan ordezkatzeari dagokionez, Foru Arau honetako 113. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

#### **110. artikulua. Enpresa ondarea kostu bidez besterentzeko eskumena**

Enpresa ondarearen ondasunak eta eskubideak kostu bidez besterentzea Foru Gobernu Kontseiluak ebatziko du, sozietateak atxikita duen saileko titularrak hala eskatuta.

#### **111. artikulua. Enpresa ondarea besterentzeko prozedura**

1. Bigarren mailako merkatu antolatuetan edo merkatu horietatik kanpo besterendu ahal izango dira

enpresa ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, indarreko legediarekin bat etorriz eta edozein egintza edo negozio juridikoren bidez. Hala behar denean, arau honek edo beste arau batzuek eskatzen dituzten baimenak beharrezkoak izango dira besterentzea egin ahal izateko.

2. Besterentzea gauzatzeko, zuzenean saldu ahal izango dira enpresa ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, edo, bestela, merkataritza erakundeetan akzioak eta partaidetzak eduki, administratu, eskuratu eta besterentzeko helburu soziala duen zuzenbide pribatuko erakunde publiko bati edo foru sektore publikoko sozietate publiko bati ekarri edo eskualdatu ahal izango dira.

Tituluak hirugarrenei saltzea trafiko pribatuaren ohiko eran bideratuko da juridikoki, dela eskudirutan dela geroraturako prezioan, baldin eta geroratzeko behar besteko bermea badago.

Atal honetan aurreikusitako ondorioetarako sozietate publiko bati ematen zaizkion ondasunak edo eskubideak erakunde edo sozietate horren kontabilitatean erregistratuko zaizkio Arabako Foru Aldundiaren kontuetan jasotako balio garbi kontableari.

3. Onartuta ohi dauden metodoen arabera zehaztuko da besterentzeko zenbatekoa. Besterentzea erabaki den baloreek bigarren mailako merkatu antolaturen batean kotizatzen badute, eragiketa egiten den unean eta egunean merkatuak ezarritako balioa izango da besterentzeko prezioa.

Edonola ere, Arabako Foru Aldundiak uste badu baloreen ohiko negoziazio bolumenak ez duela bermatzen merkatuko prezio bat egoki eratzeko, besterentzea edo balioespena egiteko legez onar daitezkeen beste metodo bat erabilita erabakiko ditu baloreen besterentzea eta prezioaren zehaztapena.

4. Baloreek antolatutako bigarren mailako merkatuetan kotizatzen dutenean, besterendu nahi den zenbatekoa ezin bada benetako ondare inbertsiotzat hartu eta ezin bada sozietate anonimoaren kapitalean partaidetza garrantzitsutzat jo, besterentzeko eskumena duen organoak legez baimendutako finantza bitartekari baten bidez besterendu ahal izango ditu baloreak. Kasu horretan, eragiketaren komisio edo zerbitzu sariak eragiketaren emaitza gordinetik kendu ahal izango dira, eta besterentzearen etekin garbia ordainduko da.

5. Ondasun edo eskubideek bigarren mailako merkatu antolatueta kotizatzen ez dutenean, edo artikulua honetako 3. paragrafoan ezarritako kasuan, besterentzeko eskumena duen organoak

erabakiko du salmenta egiteko zein prozedura erabili behar den, Foru Arau honetako III. tituluaren IV. kapituluan daudenen artean.

6. Ondoko kasuren bat gertatzen denean erabaki ahal izango da zuzeneko besterentzea:

- a) Estatutuetan akzioak libreki eskualdatzeko mugak daudenean, edo lehentasunezko eskuratzeko eskubideak daudenean.
- b) Eskuratzailerak sektore publikoaren barruko zuzenbide publiko edo pribatuko edozein pertsona juridiko denean.
- c) Balorazio irizpide bakarra duen enkantea edo adjudikazio publikoa hutsik geratu bada edo huts egindakoa izan bada. Kasu honetan, enkantea egin zenetik bi urteko epean egin behar da zuzeneko salmenta, eta baldintzak enkanterako argitaratutakoetatik desberdinak izan daitezke.
- d) Akzioen salmenta sozietatearen beraren alde egiten denean, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Errege Dekretuaren 144. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako kasuetan eta artikuluko horietako baldintza eta betebeharrak daudela, edo sozietatean partaidetza duten beste baten edo batzuen alde egiten denean. Azken kasu horretan, sozietateari eskaini behar zaizkio akzioak, eta sozietateak eskuraketa egiteko interesa duten parte-hartzaileen artean banatu behar ditu, kapital sozialean duten partaidetzaren arabera zati proportzionalatan.

## **112. artikulua. Enpresa ondarea berregituratzea**

1. Arabako Foru Aldundiak, ondare arloan eskumenduna den saileko titularrak proposatuta egindako erabaki bidez, erakundeen titulartasuneko edo erakunde horiek zuzenean edo zeharka erabat partaidetutako sozietateen titulartasuneko akzio partizipazioak erantsi ahal izango dizkie akzio partizipazioak kudeatzeko helburu duten erakunde publikoei edo erabat partaidetutako sozietateei.

Era berean, Foru Aldundiak, ondare arloan eskumenduna den saileko titularrak proposatuta, erabaki ahal izango du goian aipatutako erakundeetako instituzio erakundeen edo sozietate publikoen

titulartasuneko akzio partaidetzak eranstea Arabako Foru Aldundiari.

2. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, erakunde hartzaileek, dagokion erabakia hartzen den unetik, jaso dituzten akzioen jabari osoa bereganatuko dute. Erabaki horren kopia izango da jabetza berriaren ziurtagiria, bai kontuko oharra eta akzio izendunak aldatzeko, bai egin beharreko beste edozein administrazio, sozietate eta kontabilitate jardura egiteko. Erabakia hartu zen egunean zuten kontabilitate balio garbia dutelarik erregistratuko dira jasotako akzio partizipazioak erakunde titular berriaren kontabilitatean; hala ere, ekitaldi amaieran egin beharreko balio zuzenketak egingo dira.

3. Artikulu hau egikaritzean foru sektore publikoan gauzatzen diren titulartasun eta barne antolamendu aldaketak ez dute loturarik izango balio merkatuaren legeriarekin, ezta eskuratzeko eskaintza publikoko araubidearekin ere, eta ez dira beraz tanteo, atzera eskuratze edo lehentasunezko edo estatu eskuratzeko eskubideak egikarituko. Ez dira egikarituko ezta ere kontratuen bitartez partaidetza horietan eskualdatutako partaidetzak dituzten sozietateetako akziodunek izan ditzaketen eskubideak, edo hala badagokio, sozietate horien hirugarrenek dituztenak. Horrez gain, arau hau aplikatuz egiten den sozietate partizipazioen eskualdatze eta berrantolatze hutsa ezin izango da hartu sozietate horien harreman juridikoen aldaketatzat edo suntsiarazpentzat.

4. Artikulu hau egikaritzearen ondorioz esku hartuko duten jabego eta merkataritzako notarioen eta erregistratzaileen zergak murriztu egingo dira arantzel araubidean aurreikusitako ehunekoan, ordaindu behar duena administrazio publikoa denean.

## **II. KAPITULUA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN PARTAIDETZAKO MERKATARITZA SOZIETATEENTZAKO XEDAPEN BEREZIAK**

### **113. artikulua. Sektore publikoko merkataritza sozietateen administratzaileak**

1. Arabako Foru Aldundiaren partaidetutako merkataritza sozietateetan, Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren bitartez proposatuko du erakunde horietako administratzaileen izendapena.

2. Foru sektore publikoaren ordezkartzan sozietateen administratzailea izendatzen direnean, foru sektore publikoaren zerbitzuko goi kargudun eta langileengan ez du eraginik izango Kapital

Sozietateen Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Errege Dekretuaren 213. artikuluan ezarritako debekuak, betiere sektorean aplikatzekoa den legediak jarduera biak batera egitea onartzen duen kasuetan.

#### **114. artikulua. Foru sozietate publikoei diruz bestelako ekarpenak egiteko berezitasunak**

Zuzenean edo zeharka, Arabako Foru Aldundiaren titulartasunekoak diren sozietateei egindako diruz bestelako ekarpenen kasuan, ez da beharrezkoa izango Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintza Errege Dekretuaren 67. artikuluan ezarritako aditu independenteen txostena; haren ordezt, Foru Arau honetako 11. artikuluan ezarritako tasazioa egingo da.

## **VI. TITULUA. SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDEEKIKO HITZARMENAK**

#### **115. artikulua. Xedea**

Foru Arau honetako 1.2. artikuluan jasotako erakundeek beste herri-administrazio batzuekin edo sektore publikoko zuzenbide publiko edo pribatuko pertsona juridikoekin izenpetu ahal izango dituzte hitzarmenak, eremu jakin batean ondare eta hirigintza arloko euren arteko harremanak antolatzeko edo euren ondare diren ondasun eta eskubideen gainean Foru Arau honetan jasotako jarduerak egiteko.

#### **116. artikulua. Izaera, edukia eta prozedura**

1. Esku hartzen duten alderdien arteko ondare eta hirigintza harremanak antolatzeko beharrezko edo komenigarri deritzen behar beste hizpaketa jaso ahal izango dituzte hitzarmenek, baldin eta interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen kontrakoak ez badira.

2. Alderdien etorkizuneko jarduera konpromisoen jasotze hutsa egin ahal izango dute hitzarmenek eta, beraz, esparru hitzarmen edo protokolo orokor izaera izango dute; edo, bestela, eragiketa jakinak egitea aurreikusi ahal izango dute, eta kasu horretan berehala betearaztekoak eta

alderdientzat bete beharrekoak izan ahal izango dira.

## **VII. TITULUA. ZEHAPEN ARAUBIDEA ETA KALTE GALERENGATIKO ERANTZUKIZUNAREN ARAUBIDEA**

### **117. artikulua. Araubide juridikoa eta erantzukizunak**

1. Zehapen eskubidea eta kalte galeren erantzukizunengatiko eskubidea egikaritzea estatuko oinarrizko araubidea eta eraginpeko ondasun eta eskubideen izaeraren ondorioz aplikatu beharreko araubide berezia albo batera utzi gabe, Foru Arau honetako xedapenek arautuko dute, eta horrelakorik egin ezean, zehapen alorrean oinarrizkoa den legeriak.

2. Foru Arau honetan aipatzen diren ondasun eta eskubideen ardura bere gain hartzen duten pertsona natural edo juridiko guztiak behartuta daude haiek zaindu, kontserbatu eta modu arrazional batez ustiatzera, kasuan kasu, bai eta, kalteak edo galerak ekarri gero, Arabako Foru Aldundiaren aurrean erantzutera ere.

### **118. artikulua. Arau hausteak**

1. Ondokoak dira administrazioko arau hausteak:

- a) Foru Ondareko ondasunak edo eskubideak suntsitzea edo horietan kalteak sortzea.
- b) Foru Ondareko ondasunak indarrez hartzea.
- c) Titularrek okupazio eskubidea edo ondareko ondasunak egoera onean artatu beharra ez betetzea, edo eskubide hori izatearen ondorioz ezarritako beste edozein betebehar ez betetzea.
- d) Ondasunak baimendu gabeko obrak, lanak edo bestelako jarduerak direla medio aldatzea.
- e) Ondasunaren erabilera edo edukitza legitimatzen duen titulua iraungita ondasunak atxikitzea.
- f) Dagokien titulua eduki gabe ondasunak okupatu edo erabiltzea, edo, beren edukiarekin bat etorri gabe, okupazioa edo erabilera eragin zuten helburuez beste xedeetarako erabiltzea,



edo ondasunak lortzeko baldintzak faltsutzea.

- g) Jabari publikoko ondasunen erabilera erkide orokorra arautzen duten xedapenak ez betetzea.
- h) Zerbitzu bati atxikitako ondasunen gainean zerbitzua normal ematea eragotzi edo oztopatzen duten jarduerak egitea.
- i) Doan laga edo eskualdatutako ondasunak ezarritakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.
- j) Foru Arau honetan ezarritako zaintza eta babeserako betebeharrak ez betetzea.

2. Lege honetan ezarritako administrazioako arau haustek honela sailkatzen dira: arinak, larriak eta oso larriak.

- a) Arau hauste arinak a), b) c) d), g), h) eta j) idatz zatietan adierazitakoak dira, ebaluatutako kalte edo galera ekonomikoak 3.000 euro baino handiagoak direnean izan ezik.
- b) Arau hauste larriak a), b), c), d), g), h) eta j) idatz zatietan adierazitakoak dira, ebaluatutako kalte edo galera ekonomikoak 3.000 euro baino handiagoak eta 20.000 euro baino txikiagoak direnean, eta e), f) eta i) idatz zatietan adierazitakoak, ebaluatutako kalte edo galera ekonomikoak 20.000 euro baino handiagoak direnean izan ezik.
- c) Arau hauste oso larriak artikulua honetako 1. paragrafoan adierazitakoak dira, kalte edo galerak 20.000 euro baino handiagoak direnean.

## **119. artikulua. Zehapenak**

1. Isun hauek ezarriko dira:

- a) Arau hauste arina: 6.000 eurora arteko ohartarazpena edo isuna.
- b) Arau hauste larria. 6.001 eurotik 40.000 euro bitarteko isuna.
- c) Arau hauste oso larria. 40.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isuna, edo, kalteen balioa 50.000 eurotik gorakoa denean, eragindako kalteen balioaren bikoitzerainokoa.

2. Isunaren zenbatekoa zehazteko, ondokoak hartuko dira aintzat: eragindako kalteak, kaltetutako ondasun eta eskubideen balioa, arau haustek lortutako mozkinak, erantzuleak arau haustea behin baino gehiagotan egin duen, eta erantzulearen erruduntasun maila. Isun larriak eta oso larriak

ezartzeko, arau hausleak dagokion errekerimenduan ezarritako epean arau haustea eragin duen egoera zuzentzea joko da inguruabar aringarritzat, eta ezarritako gutxieneko zenbatekoaren erdiraino jaitsi daiteke isuna.

3. Hiru urteko epean arau hauste larriak edo oso larriak errepikatzen badira, zehapen osagarria ezar dakioko arau hausleari, hau da, hiru urteko epean baimen eta lagapenen titularra izateko desgaikuntza.

### **120. artikulua. Zehapenak ezartzeko prozedura**

Kalteen zenbatekoa zehazteko, zigorrak ezartzeko eta erantzukizunak eskatzeko prozedura administrazio bidez erabakiko eta betearaziko da, aurrez dagokion espediente bideratu ondoren; bertan interesdunari entzunaldia emango zaio.

### **121. artikulua. Arau hauste eta zehapenen preskripzioa**

1. Arau hauste arinak egin zirenetik urtebetera preskribatzen dira, larriak bi urtebetera eta oso larriak hiru urtebetera.

Arau hausteak behin eta berriro egin direla jotzen bada, arau hauste horiek eragin dituen jarduerari utzitako egunetik aurrera hasiko da zenbatzen preskripzio epea.

2. Arau hauste arinen ondoriozko zehapenak irmotasunez ezarri direnetik urtebetera preskribatuko dira, larriak hiru urtera eta oso larriak bost urtera.

### **122. artikulua. Kalte galerak konpontzea eta indemnitatzea**

1. Foru Arau honetako 118. artikuluan ezarritako arau hausteren bat egiten duenak eragindako kalte galerak ordaindu behar ditu -kalte galera horien balorazioa egin ondoren- eta ondasunak konpondu eta arau haustea egin aurretik zuten egoerara itzuli behar ditu edo, ondasunaren edo eskubidearen erakunde titularrak idatzizko adostasuna emanda, ordeztu behar ditu.

2. Eragindako kalte galerak ordaintzeko betebeharra eta jatorrizko egoerara itzultzeko betebeharra

bateragarriak izango dira bidezkoa den isunarekin eta, hala denean, ondasunen gainean eraturako harreman juridikoen azkentzearekin.

3. Administrazio bidean eskatuko da erantzukizun hau, interesatuari entzun ondoren. Ematen den ebazpenean borondatez betearazteko epe bat ezarriko da, eta, betetzen ez bada, betearazte subsidiarioa egingo da erantzulearen kontura.

### **123. artikulua. Prozedura eta eskumena**

1. Zehapen eskumena egikaritzeko eskumena eta gainerako erantzukizunak eskatzekoa zehapen alorreko oinarritzko araubidean zehaztutakoaren arabera gauzatuko da.

2. Zehapenak ezartzeko eta erantzukizunak eskatzeko eskumena ondokoei dagokie:

- a) Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko ondasun eta eskubideen kasuan, ondare arloan eskumenduna den saileko titularrari, isun arin eta larriak ezartzen direnean, eta Foru Gobernu Kontseiluari, isun oso larriak ezartzen direnean.
- b) Foru Arau honetako 1.2. artikuluan ezarritako erakundeen titulartasuneko ondasun eta eskubideen kasuan, erakundearen sortze, jarduera eta antolamendu arauak ezarri duten organoari edo, halakorik ezean, legezko ordezkariak duenari.

### **124. artikulua. Zehapenak egikaritzea**

1. Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen estatuko oinarritzko araudian ezarritako nahitaezko betearazpenerako prozeduren bidez eskatu ahal izango dira isunen zenbatekoa nahiz bereganatutako erantzukizunen ondoriozko betebeharren betetzea.

2. Horretara behartuta dagoenak ez badu eragindako kaltea konpontzen edo ez badu dagokion ebazpenean ezarritakoa behar den eran eta epean betetzen, zehatzeko eskumena duen organoak hertsatzeko isunak ezartzea erabaki ahal izango du.

Hertsatzeko isunak aldizka errepikatu ahal izango dira, hamabost egun baino txikiagoak ez diren

aldietan, eta aldi bakoitzeko zenbatekoa ezin izango da 3.000 euro baino handiagoa izan. Ondoko irizpideen arabera zehaztuko dira zenbatekoa eta aldizkakotasuna:

- a) Eragindako kalteen izaera eta zenbatekoaren arabera.
- b) Kalteak konpondu edo ordaintzeko betebeharra betetzeko atzerapena.

### **125. artikulua. Jurisdikzio penalera helaraztea**

Titulu honetan aipatutako egitateek delitu edo hutsegitea sortzen dutenean, ondare arloan eskumenduna den saileko titularrak horren berri emango dio eskumenak dituen organoari, jurisdikzio penaleko organoek jakin dezaten, eta administrazio prozeduraren izapidetzea eta ebazpena eten egingo da, harik eta epai irmoa eman arte edo kausaren largespena erabaki arte, azken kasu horretan etetea amaituko da eta prozeduraren izapidetzeak jarraitu egingo du.

## **XEDAPEN OSAGARRIAK**

### **Lehenengoa. Zerga alorreko prozedurak**

Foru Arau honen xedapenak ezin izango zaizkio Arabako Lurralde Historikoko Zerga Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoaren arabera zerga prozeduren garapenean Arabako Foru Aldundiaren ardura izan daitezkeen eskubideen kudeaketari ezarri.

### **Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten izaera publikoko foru erakunde eta entitateen ondare araubidea aldatzea**

Ondareari buruzko Foru Arau honetan xedatutakora egokitu behar dute beren ondare araubidea Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten izaera publikoko foru erakunde eta entitateek, aplikatu beharreko guztian.

### **Hirugarrena. Zenbatekoak aldatzea**

Foru Arau honetan ezarritako zenbatekoak aldatu edo eguneratu ahal izango dira Aurrekontua Egikaritzeko Foru Arauetan.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **Bakarra. Ondare espedienteen araubide iragankorra**

Foru Arau hau indarrean jartzen denean izapidetzen dauden ondare espedienteak Arabako Lurralde Historikoko Ondareari buruzko otsailaren 23ko 5/1998 Foru Arauaren arabera izapidetzen jarraituko dute.

Aurreko araudiaren itzalpean eta indarpean emandako izapide egintzek beren balioari eutsiko diote, baldin eta eusteak ez badu arau honetan ezarritakoaren kontrako ondoriorik.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Bakarra. Arau bidez indargabetzea**

Indargabetuta geratu dira Arabako Lurralde Historikoko Ondarea arautzen duen otsailaren 23ko 5/1998 Foru Araua, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 30eko 43/1999 Foru Dekretua, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularra den foru diputatuari eskuordetzen diona Lurralde Historiko honetako ondarea osatzen duten ondasun higigarriak atxikitzeko eskumena, eta sailen, foru erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoen eta foru administrazio partzuergoen norako aldaketak.

Era berean, indargabetuta geratzen dira Foru Arau honetan xedatutakoarekin bat ez datozen, aurkakoak diren edo bateraezinak diren maila bereko edo beheragoko xedapenak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Erregelamenduz garatzeko gaikuntza**

Foru Aldundiari dagozkio Foru Arau honen arauzko garapena eta, bereziki, Arabako Lurralde Historikoaren ondarea kudeatu eta babesteko baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoak aplikatzeko bidea ematen duten prozedura eta sistemen arauzko garapena.

### **Bigarrena. Indarrean jartzea**

Foru Arau hau 20 (e)ko   aren   (e)(a)n jarriko da indarrean.